2026-2030

Euskararen Plan Estrategikoa

EUSKO JAURLARITZA
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Aurkibidea

1. SARRERA 2
2. EGOERAREN DIAGNOSTIKOA 10
3. HELBURU NAGUSIAK ETA ARDATZ ESTRATEGIKOAK 14
3.1. HELBURU NAGUSIA: EUSKARAREN EZAGUTZA 16
3.1.1. ARDATZ ESTRATEGIKOA: EUSKARA-GAITASUNA 16
3.2. HELBURU NAGUSIA: EUSKARAREN ERABILERA 19
3.2.1. ARDATZ ESTRATEGIKOA: EUSKARAREN TRANSMISIOA 19
3.2.2. ARDATZ ESTRATEGIKOA: EUSKARA AISIALDI ANTOLATUAN 20
3.2.3. ARDATZ ESTRATEGIKOA: EUSKARA EREMU PUBLIKOAN 21
3.2.4. ARDATZ ESTRATEGIKOA: EUSKARA EREMU PRIBATUAN 23
3.2.5. ARDATZ ESTRATEGIKOA: EUSKARAREN ARNASGUNEAK ETA ERABILGUNEAK 24
3.2.6. ARDATZ ESTRATEGIKOA: EUSKARA HEDABIDEETAN ETA IKUS-ENTZUNEZKOETAN 25
3.2.7. ARDATZ ESTRATEGIKOA: EUSKARA INGURUNE DIGITALEAN 26
3.2.8. ARDATZ ESTRATEGIKOA: ETORKINAK 27
3.3. HELBURU NAGUSIA: EUSKARAREN PRESTIGIOA 30
3.3.1. ARDATZ ESTRATEGIKOA: EUSKARA MUNDUAN 30
3.4. HELBURU NAGUSIA: EUSKARARI BURUZKO DATUAK 33
3.4.1. ARDATZ ESTRATEGIKOA: IKERKETAK 33
4. BALIABIDE EKONOMIKOAK 34
5. GOBERNANTZA 37
6. JARRAIPENA ETA EBALUAZIO-SISTEMA 42
ERANSKINA 44

1. SARRERA

Eusko Jaurlaritzak, euskararen normalizazioan pauso sendoak ematen jarraitzeko, bere *Euskararen Plan Estrategikoa* diseinatu du. Plana Eusko Jaurlaritzak bultzatutako *Jauzia Gara* estrategiaren barruan dago, eta estrategia horren funtsezko elementuetako bat da.

Eusko Jaurlaritzak euskararen jauzi kualitatiboa bultzatzeko garatu duen estrategia da *Jauzia Gara*. Erronka da euskal hiztunen kopurua handitzea eta haien gaitasun komunikatiboa hobetzea, transmisioa bultzatzea, eta euskararen arnasguneak eta erabilguneak irabaztea, baita komunitatea indartzea ere, komunitate-loturak ehunduz.

Funtsezkoa da politika publikoak garatzen jarraitzea, bektore horretan sartzen baita, nagusiki, plan hau. Halaber, ezinbestekoa da euskara erabiltzeko baldintzak sortzea, gizarte antolatuaren eta erakundeen arteko lankidetzaren bidez, eta euskararekiko lotura emozionala elikatzea, euskararen erabilera areagotzeko zein komunitatea indartzeko eta zabaltzeko.

Euskara sustatzeko hainbat ekintza-mailatan jardungo duen ikuspegi dimentsioaniztuna behar da, hiru plano osagarri artikulatzen dituena. Plano horietako bakoitza gizarte-premia zehatzak asetzeko diseinatuta dago.

Euskara indarberritzeko politika sendoak, gizarte antolatu eta aktiboa, eta herritarren eguneroko jokabideak bateratu behar dira. Portaera zientziek adierazten dutenez, aldaketak iraunkorrak izan daitezen, funtsezkoa da egitura, esperientzia sozial partekatua eta motibazio pertsonala norabide berean lerrokatzea.

Planak bi oinarri nagusi ditu: *Gobernu Programa* eta *Aroa* marko estrategikoa. *Euskararen Plan Estrategikoa* lau helburu nagusiren barruan definitutako ekintza estrategikoak gauzatzera bideratuta dago, eta urteroko kudeaketa planean jasotako ekintza operatibo batzuen bidez hedatuko da.

Lehenengo oinarriak, *2024-2028 Gobernu Programa*k, 5 ardatz ditu, eta horietako baten jardun-arloa euskara da: “Euskara biziberritzeko prozesuak aurrera jarraitu behar du. Ezinbestekoa da hiztun aktiboen kopurua biderkatzea. Helburua da familian, kalean, eskolan, aisialdian, kirolean, lan-eremuan, osasun- eta zaintza-guneetan edo ingurune digitalean euskarazko komunikaziorako esparru berriak irabaztea, euskal herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko helburuarekin”. Horrela, plan honetan berretsi egin dira *Gobernu Programa*n ezarritako konpromisoak eta ekimenak, eta horiek betetzeko beharrezkoak diren ekintza estrategikoak zehaztu dira.

*Gobernu Programa*k jasotzen duen moduan, “erakundeen jardunari eta euskal gizartearen erabakiari esker, euskararen ezagutzak eta erabilerak gora egin dute azken hamarkada hauetan. Erronka berria da behar besteko baldintzak sortzea gure hizkuntzaren erabilerak gizarte-eremuan hazten jarrai dezan. Horretarako, Euskadik *Aroa, euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduntzeko marko estrategikoa* (2024) dauka hurrengo 10 urteetarako, hurrengo hamarkadan hedatuko dena”. Hortaz, 2024ko urtarrilaren 30ean

egindako bilkuran Gobernu Kontseiluak onartutako *Aroa* marko estrategikoa[1] da bigarren oinarria. Plan hau *Aroa* marko estrategikoan ezarritako ardatz estrategiko, erronka, lan-ildo eta ekimenekin lerrokatuta dago, eta ezagutza, erabilera, prestigioa eta datuak lehenetsi dira.

Euskarri bi horiekin batera, kontuan izan behar dira azken legegintzaldietan landutako Euskararen Agenda Estrategikoak ere. Agenda horiek guztiak funtsezko tresna izan dira euskararen normalizazioan aurrera egiteko, euskararen ezagutza eta erabilera areagotzeko helburu eta ardatz estrategikoak jasotzen baitituzte. Horrenbestez, azken agendaren ebaluazioaren emaitzak aintzat hartu dira, eta, bide horri jarraituz, agendari jarraipena emateko eta horretan sakontzeko tresna gisa ulertzen da plan hau. Era berean, plan honek euskararen normalizazioan jauzi kualitatiboa emateko aukera emango du.

Eusko Jaurlaritzaren Administrazio Orokorrari dagokionaz gain, badira erakunde publikoek eta sailek garatutako beste plan sektorial batzuk ere, euskal sektore publikoaren normalizazio prozesua osatzen dutenak.

Horiek guztiak gogoan, politika publiko guztietan euskara zeharkakotasunez lantzeko pausoak ematen jarraitu behar da. Hala, Eusko Jaurlaritza osoari dagokio euskararen normalizazioaren aldeko politiketan eragitea. Horregatik, ezinbestekoa da eragileen arteko harremanak estutzea eta lankidetza sendotzea –Eusko Jaurlaritzako gainerako sailekin eta Eusko Jaurlaritzatik kanpoko erakunde publiko, pribatu eta gizarte-eragileekin– euskara sustatzeko egiten den hizkuntza politika eraginkorra izan dadin eta jauzi kualitatiboa eman dezagun.

[1] Euskararen Aholku Batzordeak hizkuntza politikaren inguruko AMIA matrizea osatu zuen 2022-2023 bitartean, hainbat aditurekin eta eragilerekin elkarlanean. AMIA hori *Aroa* marko estrategikoaren oinarria izan da, eta plan hau osatzeko gogoeta prozesuan ere kontuan hartu da.

Gobernu Programa

2024ko uztailaren 30ean, Lehendakariak XIII. legegintzaldiko *Gobernu Programa* aurkeztu zuen. Programak 5 ardatz ditu; horietako baten jardun-arloa euskara da. Hona hemen euskarekiko konpromiso eta ekimen nagusiak laburbilduta:

I. ardatza. Pertsonak erdigunean / 6. jardun-arloa. Euskara

43. konpromisoa. ***Euskararen ezagutza handitzea eta ingurune guztietan euskararen erabilera sustatzea.***

1. ekimena. Euskara ikasteko matrikulen doakotasunean aurrerapausoak ematea.
2. ekimena. Langileek euskara ikastea erraztea.
3. ekimena. Euskara ikasteko plataforma digitala garatzea.
4. ekimena. Behar bereziak dituztenek eta etorkinek euskara ikasteko eskaintza zabaltzea.
5. ekimena. Euskara irakasteko sistema finantzatzen laguntzea.
6. ekimena. Eremu sozioekonomikoan euskara sustatzeko plana garatzea.
7. ekimena. BIKAIN ziurtagiria egokitzea eta sustatzea.
8. ekimena. Enpresei laguntza eta aholkularitza eskaintzea.
9. ekimena. Izen handiko kirol-taldeak euskararen erabileran erreferente bihur daitezen bultzatzea.

44. konpromisoa. ***Hizkuntza eskubideak bermatzeko eta hizkuntza-bizikidetza normalizatu baterako bidean aurrera egitea.***

1. ekimena. Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea euskal administrazio publikoan.
2. ekimena. 19/2024 Dekretua, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeari buruzkoa, hedatzea eta ezartzea.

45. konpromisoa. ***Euskara suspertze bidean dauden eremuetara eta eremu berrietara zabaltzeko estrategiak eta prozesuak bultzatzea.***

1. ekimena. Euskara hizkuntza teknologietan integratzen jarraitzea.
2. ekimena. Kanpoko ikus-entzunezko ekoizpenetan euskarazko azpitituluak eta bikoizketa sustatzea.
3. ekimena. Eskolaz kanpoko jardueretan euskararen erabilera sustatzea.
4. ekimena. Euskarazko lanak beste edozein hizkuntzatara eta kanpoko lanak euskarara itzultzea sustatzea.

Euskarekiko konpromisoak berariaz jasotzen dituen ardatz eta jardun-arloaz gain, gainerako ardatz eta jardun-arloetan ere badira euskarari lotutako beste konpromiso eta ekimen batzuk. Euskararen zeharkako izaera kontuan hartuta, ezinbestekoa da horiek ere hizkuntza politiken diseinuan gogoan hartzea eta integratzea.

4. jardun-arloa. Hezkuntza (Hezkuntza / Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntza)

Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza

26. konpromisoa. *Hezkuntza-sistema eleaniztuna eta kulturartekoa nazioartekotze-esparru batean.*

1. ekimena. Esparru eleanitz eta kulturarteko berria garatzea, euskara eta euskal kultura ardatz hartuta.
2. ekimena. Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutua sortzea.
3. ekimena. Ikasleek curriculumeko hizkuntza guztietan duten hizkuntza-gaitasuna indartzea.
4. ekimena. Irakasle guztientzako hizkuntza- eta metodologia-prestakuntzako programak ezartzea.
5. ekimena. Euskararen erabilera sustatzen duten eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzea bultzatzea.

Lanbide Heziketa

29. konpromisoa. *Errendimendu Handiko Prestakuntza Lanbide Heziketan.*

3. ekimena. Ikasleen euskarazko prestakuntzan eta eleaniztasunean aurrera egitea.

Unibertsitatea eta Ikerkuntza

34. konpromisoa. *Ekitatea eta berdintasuna bermatzea eta euskara euskal unibertsitate-ekosisteman hizkuntza akademiko gisa sustatzea.*

3. ekimena. Euskarazko prestakuntza eta ikerketa sustatzea.
4. ekimena. Euskarazko online prestakuntza-eskaintza sustatzea.

7. jardun-arloa. Kultura (Kultura eta Hizkuntza Politika)

47. konpromisoa. *Kulturaren sortzaileei, artistei eta profesionalei laguntzea, Euskadin kultura-sorkuntza eta -ekoizpena bultzatzeko eta talentua garatzeko aukerak biderkatzeko.*

1. ekimena. Kultura sortzeko eta ekoizteko laguntza publikoa mantentzea eta eguneratzea.
7. ekimena. Euskal artisten lanak sustatzea munduan antolatzen diren azoka, jaialdi eta merkatuetan.

8. ekimena. Euskal kultura eta ikus-entzunezko ekoizpenak bultzatzen jarraitzea, “Euskadi Basque Country” marka mundu osoan zabaltzeko.

49. konpromisoa. *Euskadiko kultura-ondarearen kontserbazioa, kudeaketa eta transmisioa balioestea eta ziurtatzea*.

1. ekimena. Kultura-jarduera tradizionalak sustatzea.

II. ardatza. Hazkunde- eta ongizate-eredua / 14. jardun-arloa. Digitalizazioa eta Adimen Artifiziala (Gobernantza, Administrazio Digitala eta Autogobernua)

86. konpromisoa. *Jarduera digital etiko eta eleaniztuna ziurtatzea.*

5. ekimena. Euskararen presentzia digitala sustatzea eta babestea (Euskararen Corpus Digitala).

IV. ardatza. Bizikidetza, Memoria eta Giza Eskubideak / 29. jardun-arloa. Justizia eta espetxeak (Justizia eta Giza Eskubideak)

140. konpromisoa. *Justizia unibertsala eta eskuragarria bultzatzea.*

4. ekimena. Justizia euskalduntzeko prozesuan aurrera egitea.

V. ardatza. Autogobernuan haztea / 31. jardun-arloa. Gobernantza eta gardentasuna (Gobernantza, Administrazio Digitala eta Autogobernua)

149. konpromisoa. *Administrazioa digitalizatzen jarraitzea, arlo horretan finko diren eta trebatuta dauden pertsonekin.*

2. ekimena. Administrazioa pixkanaka euskalduntzen jarraitzea.

*Gobernu Programa*n honako jarduera-ildo hauek ere jasotzen dira migrazio eta gazteria eremuetan:

– Migratzaileentzako berariazko prestakuntza euskaraz.
– Harrera-programak, non hizkuntza gakoa den.
– Familia-sarerik gabeko gazte migratzaileentzako laguntza, laguntza linguistikoa barne.
– Hezkuntza eleanitza, euskara ardatz hartuta.
– Ikasle etorri berrientzako programak (EUSLE).
– Euskararen sustapena kulturan, kirolean eta gazteen eguneroko bizitzan.

Aroa marko estrategikoa

Aroa, euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduntzeko marko estrategikoa osatu da *Euskara Sustatzeko Ekintza Plana* (*ESEP* 2012-2023) berrikusi ondoren. Testuak diagnostiko soziolinguistiko sakona jasotzen du, ikerketa berrietan, herritarren pertzepzioetan, AMIA analisian eta joera globaletan oinarrituta. *Aroa* globalizazioak, aldaketa teknologikoek, digitalizazioak, migrazioek eta erronka sozial berriek markatutako testuinguru batean sortua da; konplexuagoa, hiritarragoa eta eleaniztunagoa den munduan euskararen ekosistema indartzeko tresna gisa.

*Aroa*k 2034ra begirako ikuspegia proposatzen du, eta xede du euskararen transmisioa ziurtatzea, euskal hiztun aktiboen kopurua handitzea, babesguneak sendotzea, euskararen prestigioa indartzea eta euskararen presentzia ingurune digitalean handitzea, besteak beste. Hori lortzeko, zazpi ardatz estrategiko zehazten ditu: gobernantza, jarrerak / motibazioak, ezagutza / gaitasuna, erabilera / elkarreragina, berrikuntza, ikerketa / sistematizazioa eta komunikazioa / hedapena; erakunde eta lurralde bakoitzera egokitu beharreko erronka, lan-ildo eta ekimen zehatzekin batera.

*Aroa*n euskara indarberritzea zeharkako zeregina da, sektore artekoa eta lankidetzan garatzekoa, eta hizkuntza politika zehatzetatik zein arlo publiko eta sozial guztietatik landu behar da. Zeharkakotasuna azpimarratzen du: euskara politika publiko guztietan txertatu behar da, kohesiorako, justizia sozialerako eta inklusiorako elementu ere izan dadin bermatzeko.

Euskararen indarberritzeak gobernantza aurreratua eta metodologia malguak behar dituela, egungo herritarren hizkuntza-, kultura- eta gizarte-aniztasuna barne hartuko dituztenak. Era berean, erakundeen barruan eta ingurune sozial eta komunitarioan lan egitearen garrantzia nabarmentzen du, administrazioen euskalduntzea eta, aldi berean, gizarte osoarena indartuz. Hezkuntza, aisia, kirola eta ingurune digitala funtsezkoak dira hizkuntza ohitura sendoak bultzatzeko eta euskal hiztun aktiboak dituen komunitatea indartzeko.

Beste lotura batzuk

Plan honek bestelako dokumentu eta erreferentzia-marko batzuk ere kontuan hartzen ditu.

Euskaltzaindiaren *Euskararen Gogoetagunea* egitasmoa ere aintzat hartu da, euskararen etorkizunari buruzko hausnarketa sakona.

*2030 Agenda*ren esparruan, hainbat erakundek ekimen ugari jarri zituzten abian kultura eta hizkuntza gutxituen presentzia bermatzeko eta ikusgarritasun handiagoa emateko. Testuinguru horretan, prozesu tekniko eta parte-hartzaile bat egin ondoren, Eusko Jaurlaritzak *GJH 18rako helburuak* dokumentua egin zuen, behar horri erantzuteko. Dokumentu hori ere kontuan hartu da plan honetan.

Horrez gain, Eusko Jaurlaritzaren beste plan eta foro batzuk ere gogoan ditu:

Lehendakaritzan, *Euskadi-Basque Country Estrategia 2025* nabarmentzen da. Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, Etxepare Euskal Institutuaren bidez bereziki, estrategia horretan parte hartzen du era aktiboan, euskara eta euskal kultura sustatzen eta zabaltzen laguntzeko.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2030: euskararen eta euskal kultur ondarearen transmisioari buruzko ikerketak sustatuko dira. Izan ere, planaren helburu estrategikoetako bat da komunitate-zentzua sendotzea, demokrazia indartuz, aditu-ezagutza errespetatuz, ongizate integralaren aldeko apustua eginez eta euskal hizkuntza eta kultura sustatuz.

Industria Plana - Euskadi 2030: euskararen balio estrategikoa Euskadiko industria-eraldaketan zeharka txertatu beharreko aktiboetako bat dela aitortzen da.

Euskal Osasun Ituna. Ildo Estrategikoak: pazienteen eta profesionalen hizkuntza eskubideak betetzeko lan egingo da.

Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren VI. Plan Interkulturala: euskara ezagutzea eta erabiltzea sustatzea beharrezkoa da atzerritar jatorriko pertsonen gizarteratze-prozesuan aurrera egiteko.

Migrazioaren eta Asiloaren Euskal Foroa, 67/2023 Dekretuaren bidez sortua, politika publikoen arloko aholkularitza- eta partaidetza-organo egonkorra da. Horren barruan Euskara eta Hizkuntza Aniztasunaren Lan Batzordea eratu da, hizkuntza-aniztasunaren kudeaketa, euskararen normalizazioa eta bizikidetza lantzeko.

Zeharkako gaiak[2]

Hizkuntza normalizazioak zeharkako gaia izan behar du Eusko Jaurlaritzak garatu beharreko plan eta politika publiko guztietan. Zeharkakotasuna da, beraz, plan honen muina, Eusko Jaurlaritzak euskara indarberritzeko duen konpromisoa islatzen baitu.

Era berean, plan honek genero berdintasunarekiko konpromisoa jasotzen du, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana*rekin lerrokatuta.

[2] Araudia: 3/2022 Legea, Euskal Sektore Publikoari buruzkoa, 76.2 artikulua; 1/2023 Legegintzako Dekretua, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena, 25.1 artikulua; 15/2023 Legea, Enpleguari buruzkoa, 9.1 artikulua; 6/2016 Legea, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzkoa, 23.1 artikulua.
Plan honek ez ditu zuzenean lantzen zeharkako gaitzat jotzen diren osasuna, klima-aldaketa, mugikortasun jasangarria eta garapen iraunkorrerako politiken koherentzia.

2. EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

Egungo gizartea

Egungo gizartean aldaketa etengabeak eta sakonak gertatzen ari dira. Biztanleria gero eta zaharragoa da: bizi-itxaropenak gora egiten du eta jaiotza-tasak behera. Gainera, saldo begetatiboa –jaiotzen eta heriotzen arteko saldoa– negatiboa da; hau da, gehiago dira heriotzak jaiotzak baino.

Azken hamarkadetan atzerrian jaiotako gero eta jende gehiago etorri da EAEra, eta gazteak dira etorkin horietako gehienak. Horrek eragin bikoitza du gizartean: batetik, EAEko biztanleriaren hazkundea migrazio-saldo positiboari zor zaio; bestetik, gazteen artean pisu handia hartzen ari dira atzerrian jaiotakoak.

Gainera, hainbat faktorek, hala nola hirigintza-garapenak, lan-merkatuak, azpiegituren eta garraioaren hobekuntzak, bizimodu-aldaketak... herritarren mugikortasuna areagotu dute. Gero eta euskaldun gehiago bizi dira erdaldunak nagusi diren gune soziolinguistikoetan. 1981ean euskaldunen erdia baino gehiago 3. edo 4. gune soziolinguistikoetan bizi zen, hau da, gune euskaldunean edo nahiko euskaldunean. 2021eko datuen arabera, 3. eta 4. gune soziolinguistikoetan bizi diren euskaldunak % 42,7 dira eta 1. eta 2. gune soziolinguistikoetan bizi direnak % 57,3. Beraz, euskaldun askok hartu-emanak euskaraz izateko duten sarea mugatua da.

Gaur egun, lehen ez bezala, euskaldun-kopuru handiena gune erdaldunenetan dago, eta, hortaz, harreman-sare erdaldunagoa dute; euskara erabiltzeko aukera gutxiago dute aukera horiek sustatzen ez badira. Hona hemen erronka handi bat.

Hizkuntza aldagaiei dagokienez, euskararen ezagutza bikoiztu egin da azken 40 urteotan. 2021eko datuen arabera, EAEko herritarren % 42,5 euskalduna da; 20 urtetik beherako gazteen % 86,5. Duela 30 urte, euskaldun gehienak helduak ziren; gaur egun, euskaldun gehienak gazteak dira. Hizkuntza indarberritzeari begira, lanerako oinarri sendoa dago.

Ezagutzari dagokionez, belaunaldiz belaunaldiko euskararen transmisioan oso garrantzitsua da familia. 15 urtetik beherako gazteen artean, guraso biak euskaldunak dituztenen % 94,5ek euskara jaso du etxean, gehienek euskara soilik. Guraso bakarra euskalduna dutenen artean ere gero eta handiagoa da euskararen transmisioa; % 69,3k jaso du euskara, gaztelaniarekin edo beste hizkuntza batekin batera. Aitortu behar da gurasoek nabarmen zaindu dutela euskararen transmisioa, ezinbestekoa baita hizkuntza gutxiagotu baten etorkizuna bermatzeko.

Ezagutzaz gain, euskararen erabilerak ere gora egin du (6,5 puntu azken 30 urteotan). Hazkunderik handiena eremu formalean gertatu da (7,9 puntu 25 urtean), eta familian seme-alabekiko erabilerak ere hazkunde esanguratsua izan du (5,9 puntu azken 30 urteotan).

Erabilera baldintzatzen duen faktore nagusietako bat, harreman-sarearekin batera, hitz egiteko erraztasuna da. Horrela, gora egin du erdaraz hitz egiteko erraztasun handiagoa

duen euskaldunen kopuruak: 2021eko datuen arabera, euskaldunen % 44,3k erraztasun handiagoa du erdaraz hitz egiteko; 1991n % 37,8 ziren. Euskaldun gehiago daude, baina horien artean gehiago dira erraztasun handiagoa dutenak erdaraz euskaraz baino. Euskaldunen hazkundea eremu erdaldunetatik dator nagusiki, eta hazkunde horrek berarekin dakar erdaraz erraztasun handiagoa duten euskaldunak ugaritzea. Errealitate eta erronka horri aurre egin behar diogu, eta erabilera aukerak zabaldu.

Euskaraz hitz egiteko erraztasuna oso lotuta dago lehen hizkuntzarekin. 2021eko datuen arabera, euskaldunen erdiak baino gehiagok erdara du lehen hizkuntza, eta 20 urtetik beherako euskaldun gazteen artean % 60k baino gehiagok. Euskaldun horiek etxetik kanpo ikasi dute euskara, hezkuntza-sistemari esker nagusiki. Izan ere, D ereduan matrikulatutako ikasleen hazkundea handia izan da: 1983-1984 ikasturtean % 14,2 ziren D ereduan matrikulatutakoak eta 2022-2023 ikasturtean % 70,2.

Euskararen erabilera sustatzeko jarrerari dagokionez, EAEn gero eta pertsona gehiago daude alde. Gaur egun, herritarren % 67k euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrera du; 1991n, berriz, % 55ek. Era berean, badira euskal herritarren euskararen aldeko jarrera argia berresten duten beste adierazle batzuk: % 88,2k uste du etorkizunean euskaraz eta gaztelaniaz hitz egin beharko litzatekeela, % 89,3k pentsatzen dut haur guztiek euskara ikasi beharko luketela, % 74,7aren iritziz administrazioan sartzeko euskara jakin beharko litzateke eta % 73,6k nahiko luke, seme-alabarik izanez gero, D ereduan ikastea.

Horrez guztiaz gain, euskara beste eremu batzuetara ere zabaldu da. Euskarazko hedabideak egunero kontsumitzen dituztenak herritarren % 19,5 dira. Euskara tokia hartzen ari da apurka-apurka ingurune digitalean. 2021eko datuen arabera, Interneteko sare sozialak erabiltzen dituzten herritarren % 19,5ek euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du. Gazteen artean, ehuneko hori % 28,5 da.

Datu horiek guztiek euskararen indarberritzeari arnasa ematen diote eta euskal gizarteak elebitasunaren aldeko apustua egin duela erakusten dute. Eta elebitasunaren aldeko apustua egitea, azken batean, demokraziaren, justiziaren, askatasunaren eta giza duintasunaren alde egitea da.

Euskararen Agenda Estrategikoa 2021-2024

Aurreko legealdiko Agendan berretsi egin dira *2020-2024 Gobernu Programa*n ezarritako 3 konpromisoak eta 21 ekimenak, eta 60 azpi-ekimen zehaztu dira. Horiek guztiak aurrera eramateko, hainbat jarduera gauzatu dira: 140 jarduera bideratu dira euskararen ezagutza eta erabilera areagotzera (1. konpromisoa), 33 jarduera hizkuntza eskubideen bermean aurrera egiteko (2. konpromisoa) eta 26 jarduera euskararen eremuan lankidetza indartzeko (3. konpromisoa).

Egindako jarraipenak erakusten du aurreikusitako jarduera gehienak garatu direla.

Urtea	Jarduerak				
	Guztira	eginda	lantzen	egin gabe	amaituta
2021	192	139	37	16	-
2022	192	152	35	5	-
2023	197	162	17	7	11
2024	199	159	4	15	21

Legegintzaldi osoari begira, jarduera hauek nabarmendu dira:

- Helduen euskalduntzearen doakotasunean aurrera egin da.
- INGURA autoikaskuntza sistema abian jarri da.
- Eremu sozioekonomikoan, hizkuntza teknologian eta kirol arloan planak garatu dira.
- *Aroa* marko estrategikoa gauzatu da.
- *VII. Inkesta Soziolinguistikoa*ren emaitzak argitaratu dira.
- Eusko Jaurlaritzan euskararen erabilera normalizatzeko VII. plangintzaldia 2023-2027 garatu da.
- 97/2023 Dekretua eta 19/2024 Dekretua gauzatu dira.
- Euskararen Aholku Batzordeko batzorde-atal bereziek beren txostenak aurkeztu dituzte.
- Estatuko hizkuntza politikaren arloko Lankidetza Protokoloa garatzen jarraitu da.
- Europar Batasunean euskara ofiziala izan dadin eskatzeko txostena egin da.

Agendan ezarritako konpromisoak eta helburu estrategikoak gogoan izanda, adierazleak zehaztu dira. Adierazle gehienen bilakaera positiboa izan da. Euskaldunen kopuruak gora egin du, eta euskararen erabilerak ere gora egin du oro har; hala ere, euskararen erabilerak behera egin du eskolan ikasleen profila aldatzen ari delako. Euskararen transmisioari dagokionez ere, euskara soilik jasotzen dutenen kopuruak behera egin du, baina gora euskara eta beste hizkuntza bat jasotzen dutenenak.

Helb.	Adierazleak	2021[3]	2024	Iturria[4]
1	Euskaldunen bilakaera	895.942	936.812	*BEE*
	Gazte euskaldunen kopurua (< 30 urte)	424.029	448.190	*BEE*
2	Euskararen erabileraren bilakaera	% 20,5	% 22,0	*IS*
	Euskararen erabilera arloka			
	• etxekoa	% 19,0	% 19,9	*IS*
	• lagunartekoa	% 21,4	% 22,1	*IS*
	• formala	% 21,7	% 23,4	*IS*
	• lankideekin	% 25,3	% 26,8	*IS*
	• eskolan (LMH4 / DBH2)	LMH4 % 58,5 DBH2 % 40,7 (2017)	% 53,4 % 36,0 (2019)	*Arrue*
	• ingurune digitalean (sare sozialetan)	% 17,6	% 19,5	*IS*
	• eskola kirolean	%70,1	% 71,8	FA
	• hedabideetan	(2020) % 18,4	(2023) % 19,5	*CIES*
	Euskararen transmisioa			
	• 1. hizkuntza euskara	% 18,4	% 17,8	*BEE*
	• 1. hizkuntza biak	% 6,3	% 6,8	*BEE*
	• 1. hizkuntza erdara	% 75,3	% 75,4	*BEE*
3	Euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrera	% 65,0	% 67,0	*IS*
	BIKAIN ziurtagiria lortu duten erakundeak	(2020) 17	35	HPS
	Konponbide egokia izan duten intzidentziak (Elebide)	% 51,5	% 68,5	HPS
1-4	Euskararen erabilera sustatzeko inbertsioa	130.091.241	133.747.182	HPS

[3] 2016ko datuetan oinarritutako informazioa da. Horrela ez denean, zehaztu egin da.
[4] Iturriak: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika (BEE), Inkesta Soziolinguistikoa (IS), foru aldundiak (FA).

3. HELBURU NAGUSIAK ETA ARDATZ ESTRATEGIKOAK

Euskararen ezagutzan eta erabileran jauzi kualitatiboa ematea da legegintzaldi honetako helburu nagusia. Euskararen ezagutza eta erabilera etengabe sustatzea nahitaezkoa da euskal herritarron hizkuntza eskubideak bermatzeko eta euskararen eremuak zabaltzeko. Izan ere, hori guztia funtsezkoa da kalitatezko bizikidetzan aurrera egiteko. Jauzi kualitatibo hori ematea gizarte osoari dagokio, kide guztien bultzadaz, komunitate bakar bezala jokatuz, euskara guztion ondasuna delako.

Euskararen ezagutza areagotzeko eta hobetzeko ardatz estrategikoa herritarren hizkuntza-gaitasuna hobetzea eragitea eta sustatzea izango da; erabilera areagotzeko, berriz, zortzi ardatz estrategiko landuko dira: euskararen transmisioa, aisialdi antolatua, eremu publikoa, eremu pribatua, arnasguneak eta erabilguneak, hedabideak eta ikus-entzunezkoak, ingurune digitala eta etorkinak.

Era berean, lehentasunezkoa da euskarari prestigioa ematea eta euskararen inguruko datuak hobeto ezagutzea, *Aroa* marko estrategikoan jasotzen den bezala.

Euskarak lotura trinkoagoa behar du egoera emozional positiboekin. Horrela, eta *Jauzia Gara*[5] estrategiaren osagarri, euskararekiko eta euskal kulturarekiko atxikimendu handiagoa lortzeko, plan honen bidez euskara komunitate bateko kide izateko poztasunarekin eta harrotasunarekin lotzeko programak sustatu behar dira; ezagutzan, lagun arteko harremanetan, aisialdian, kirolean... euskarara hurbiltzeak mundu berri bat ezagutzeko aukera ematen duela gizarteratu behar da, hizkuntza batera hurbiltzea ez baita soilik komunikazio-tresna bat eskuratzea, baizik eta mundua ezagutzeko modu bati ateak irekitzea. Plan honek, zalantzarik gabe, euskararen prestigioan sakonduko du.

Horrez guztiaz gain, oso garrantzitsua da euskararen errealitatearen berri izatea: euskararen egoera eta bilakaera, gizarte-pertzepzioak, jarrerak... Ikerketak baliatzeak eta sustatzeak, hizkuntza politiken inguruko foroetako ondorioekin batera, bidea erakutsiko dute euskara indarberritzeko hausnarketa egin eta estrategia eraginkorrak diseinatzeko eta pauso eraginkorrak eman ahal izateko, herritarren parte-hartzea eta emaitzen zabalkundea bultzatzeko entzute bideak gaituz.

Horrenbestez, planean ezarri diren helburuei lotuta, hainbat ardatz estrategiko identifikatu dira, eta ardatz estrategiko bakoitzean helburu eta ekintza estrategiko askotarikoak zehaztu dira, baita helburu mailako adierazle ugari ere. Dena den, oinarrizko hiru adierazle zehaztu dira planaren helburu nagusiak gogoan hartuta.

[5] *Jauzia Gara* estrategiak bide berriak aztertu eta estrategia berritzaileak garatu nahi ditu, egungo eta etorkizuneko erronkei era egokian erantzuteko; bidelagun berriak gehitu, aniztasunean irabazi, hautematen diren ahuleziak gainditzeko. Bide horri eraginkortasunez ekiteko, aliantza berriak eta askotariko harremanak landu behar dira, beste errealitate eta esperientzia arrakastatsu batzuk ezagutu, eta elkarlanean aurrera egin.

Helburuak	Adierazleak[6]	2026[7]	2030[8]
Ezagutza	Euskaldunen bilakaera	% 43,3	% 48,8
Erabilera	Euskararen erabileraren bilakaera	% 22,0	%24,0
Prestigioa	Euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrera	% 67,0	%71,0

Horrez guztiaz gain, ekintza operatiboak urteroko kudeaketa planean jasoko dira.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (HPS) –bere mendeko hiru zuzendaritzen eta HABE erakunde autonomoaren eskutik– arduratuko da plana bideratzeaz. Horregatik, helburu bakoitzaren ondoan arduraduna zehaztu da, sigla hauen bidez:

- ESZ (Euskara Sustatzeko Zuzendaritza)
- HAHNZ (Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritza)
- HIKZ (Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritza)
- HABE (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea)

Hala ere, euskararen zeharkako izaera dela eta, sail bakoitza arduratuko da hizkuntza dimentsioa bere politika guztietan integratzeaz, eta hizkuntza normalizazioa bultzatzeko beharrezko neurriak –aurreratuak, berritzaileak, anbiziotsuak, eraginkorrak eta proaktiboak– hartuko ditu.

Planaren epealdia dela eta, legegintzalditik haratago jo eta *2030 Agenda*rekin uztartu da. Izan ere, hizkuntza politika arloan hartutako neurrien eraginkortasuna egiaztatzeko legegintzaldi bati dagokiona baino denbora tarte luzeagoa behar da.

Planak izaera bizia du; hortaz, beharren arabera, gauzatu beharreko ekintzak osatzeko eta egokitzeko aukera egongo da, eta urtez urteko kudeaketa planean jasoko dira xehetasunak: arduradunak, bidelagunak, jarduerak, egutegia…

[6] Iturriak: EUSTAT-Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika eta *Inkesta Soziolinguistikoa.*
Horiez gain, kontuan izan behar da Euskararen Adierazle Sistema (EAS).
[7] 2021eko datuetan oinarritutako informazioa da; 2026ko daturik ez dago oraindik.
[8] Aurreikuspena da. Ezagutza: 1981-2021 bitarteko bilakaeran oinarritutako kalkulua; erabilera eta prestigioa: 1991-2021 bitarteko bilakaeran oinarritutako kalkulua.
EUSTATen estatistika zein *Inkesta Soziolinguistikoa* 2027an argitaratzea aurreikusita dago, 2026ko datuekin. Horrela, 2032an izango genituzke 2031ko datuak.

3.1. HELBURU NAGUSIA: EUSKARAREN EZAGUTZA

3.1.1. ARDATZ ESTRATEGIKOA: EUSKARA-GAITASUNA

Hizkuntza giza komunikaziorako erabiltzen den hautazko zeinu-sistema da, eta komunikatzeko gaitasuna esaten zaio pertsona batek testuinguru jakin batean eraginkor eta egoki aritzeko duen ahalmenari.

*Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculuma*k (2015) bi oinarri nagusi ditu: gaitasun komunikatibora eta ekintzara bideratutako ikuspegia, eta ikaslearen autonomia. Ildo horretatik, gaitasun komunikatiboak lau azpi-gaitasun ditu: gaitasun linguistikoa, gaitasun soziolinguistikoa, gaitasun diskurtsibo-testuala eta gaitasun estrategikoa.

*Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren Liburu Osagarria*k (2020) lau trebetasunen eredu tradizionala gainditzen du komunikazioaren errealitate konplexua biltzeko, eta, bizitza errealeko hizkuntza-erabileratik gertuago, lau komunikazio-molde bereizten ditu: ulermena, ekoizpena, elkarreragina eta bitartekotza.

*VII. Inkesta Soziolinguistikoa*ren arabera (2021), EAEn 16 urtetik gorako euskaldunen kopurua etengabe hazi da azken hamarkadetan: 1991n baino 261.000 euskaldun gehiago zenbatu dira. Hazkunde hori, lehenik eta behin, hezkuntza-sistemaren bidez euskaldundutako gazteen ekarpenari zor zaio eta, bigarrenik, neurri txikiagoan, helduen euskalduntzeari. Horren ondorioz, gero eta gazte euskaldun gehiagok dute euskara bigarren hizkuntza.

Faktore horrek zuzenean eragiten du euskararen erabileran, eta erronkak azaleratzen ditu. Euskaldunen kopurua handitu da eta, horrekin batera, erdaraz hitz egiteko erraztasun handiagoa duten euskaldunen proportzioa.

Eusko Jaurlaritzak, 2025eko udazkenean, helduak euskalduntzeko INGURA plataforma digitala jarri du abian, euskararen ezagutzan jauzi kualitatiboa emateko, eskaintza globala bultzatzeko eta eskaintza hori gero eta eskuragarriagoa eta malguagoa izateko.

Bestalde, helduen euskalduntzearen eremu guztietan kudeaketa desburokratizatu eta arintzeko proiektu digital bat garatzea aurreikusi da: ikasleen matrikulazioa, euskalduntze-jarduerari buruzko informazioa eta datuak, irakasleen prestakuntza, euskaltegi eta ikasleentzako laguntzen kudeaketa, komunikazio-gaitasun mailen egiaztapenaren kudeaketa eta INGURA autoikaskuntza-sistemaren garapena.

Doakotasunaren bidean egindako urratsen helburua euskara ezagutzen ez dutenengana edo menderatzen ez dutenengana hurbiltzea da. Matrikulen doakotasuna zabaltzeko prozesu hori, gaur egun indarrean dagoena A1, A2 eta C1 mailetan (16-18 urte bitarteko pertsonak), gainerako mailetara zabalduko da pixkanaka, ahalik eta erabiltzaile independente gehien lortzeari lehentasuna emanez (B1).

Behar bereziak dituzten pertsonei zuzendutako ikasmaterialak egokituko dira, aurrez aurreko eta jardun biko ikas-modalitateetarako, baita autoikaskuntza sistema ere,

kolektibo hori ordezkatzen duten elkarteekin elkarlanean. Era berean, euskara-mailak egiaztatzeko prozesuak egokitzen jarraituko da.

Etorkinei begira, ikastaro eskaintza zabaldu eta eskuragarriago jarri nahi da, euskara ikasteko dituzten zailtasunak saihesteko. Horiei eskainiko zaizkie euskarara hurbiltzeko ikastaroak eta ohiko ikastaroak, ikas-modalitate guztietan (aurrez aurrekoa, jardun bikoa eta autoikaskuntza), ahozkotasunari bereziki erreparatuta.

EG.1. Helburua: Euskaltegietako ikasle-kopurua handitzea. (HABE)

EG.1a) Adierazlea: Euskaltegian matrikulatutako ikasle-kopurua

EG.1.1. Ekintza: Helduen premietara egokitutako eskaintza sustatu.

EG.1.2. Ekintza: Behar bereziak dituzten helduentzako i(ra)kaskuntza inklusiboa garatu.

EG.1.3. Ekintza: Etorkinei zuzendutako eskaintza zabaldu.

EG.2. Helburua: Euskaltegiek eskaintzen duten zerbitzua hobetzen laguntzea. (HABE)

EG.2a) Adierazlea: Euskaltegiek eskaintzen duten zerbitzuari buruzko asebetetze-maila

EG.2.1. Ekintza: Euskaltegietan eskaintzen den irakaskuntza sistematizatu, *Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculuma* (*HEOC*) eguneratuz.

EG.2.2. Ekintza: Euskaltegiei kalitatezko materialak eskaini.

EG.2.3. Ekintza: Euskaltegietako irakasleen ezagutza didaktikoa areagotu.

EG.2.4. Ekintza: Euskaltegietako irakasleen lan-baldintzak hobetu, giza baliabideak egonkortzeko eta profesionaltasuna areagotzeko.

EG.2.5. Ekintza: Helduen euskalduntzearen eremu guztietan kudeaketa desburokratizatu eta arintzeko proiektu digitala landu.

EG.3. Helburua: Euskara-gaitasuna aitortzeko egiaztatzegintza eta ebaluazio-sistemaren kalitatea hobetzea. (HABE)

EG.3a) Adierazlea: Azterketariek eta euskaltegiek egiaztatze-prozesuarekiko adierazten duten asebetetze-maila

EG.3.1. Ekintza: Euskaltegietako deialdi itxiak zein herritarrentzako deialdi irekiak antolatzen jarraitu.

EG.3.2. Ekintza: Egiaztatze-sistema inklusiboa eta eskuragarria garatu.

EG.3.3. Ekintza: Digitalizazioa eta berrikuntza teknologikoa bultzatu.

EG.3.4. Ekintza: Euskaltegietako ebaluazio-sistema eta egiaztatzegintza orekatu (*washback*).

EG.3.5. Ekintza: Ebaluazio-sistema desburokratizatu.

3.2. HELBURU NAGUSIA: EUSKARAREN ERABILERA

3.2.1. ARDATZ ESTRATEGIKOA: EUSKARAREN TRANSMISIOA

Familia bidezko hizkuntza transmisioa da seme-alabek gurasoengandik jasotzen dutena. Era berean, belaunaldi batetik bestera hizkuntza transmititzeko biderik eraginkor eta efizienteena da. Transmisio hori uneren batean eteteak, hizkuntzaren bizi-indarra arriskuan jarriko luke. Izan ere, desagertzeko arriskuan dauden hizkuntza gutxiagotu gehienetan behera nabarmen egiten duen lehen adierazlea transmisioarena da.

Euskararen kasuan ere, familia bidezko transmisioa ezinbesteko elementua da hizkuntzaren normalizazio prozesuan. Familiaz harago, gizarte harremanek eta erakundeek ere zeregin garrantzitsua dute hizkuntza-sozializazio prozesuan (auzo-komunitate hurbileko harreman-sareek, eskolak eta hezkuntza arloko bestelako erakundeek, aisialdi antolatuak, gizarte elkarteek, hedabideek, sare sozialek, euskal kultur jarduerek...). Horrenbestez, etxeko hizkuntza, ahal den guztietan, euskara izan dadin bermatzea eta etxetik kanpoko harreman hurbilak euskaraz izan daitezen lortzea erronka dira euskararentzat eta euskal kulturarentzat.

Guraso euskaldunen kasuan, kide bat edo biak elebidunak direnean, euskararen transmisioa oso handia da. Guraso ez euskaldun askok, bertakoak edo etorritakoak izan, seme-alabak eskolan euskaraz hezteko hautua egin dute, baliagarri ikusten dutelako seme-alaben etorkizunerako, komunitate baten parte sentiarazten dituelako eta, euskal gizartearen gehiengoak bezala, uste dutelako euskarak ateak irekitzen dituela eta etorkizun oparoagoa eskaintzen duela.

Hau da 3-15 urte bitarteko seme-alaben hizkuntza transmisioa, gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera (EAE, 2021):

- Guraso biak euskaldunak direnean, seme-alaben % 84,3k euskara jasotzen du eta % 10,3 euskara eta erdara, biak.
- Gurasoetako bat bakarrik denean euskalduna, seme-alaben % 69,9 euskara eta erdara, biak, jasotzen ditu (familia mota honetan, noski, ez dago gurasoengandik euskara bakarrik jasotzen duen umerik).

Familia bidezko euskararen transmisioa bultzatzeko, “Etxetik euskaraz//” egitasmoan gauzatutako eskuliburua zabaldu nahi da, lanabes modura erabil dadin.

ET.1. Helburua: Familia bidezko euskararen transmisioa ziurtatzea eta indartzea. (HAHNZ)

ET.1a) Adierazlea: Lehen hizkuntza euskara dutenak (%)

ET.1b) Adierazlea: Euskararen transmisioa familia euskaldunetan (%)

ET.1c) Adierazlea: Euskararen transmisioa familia mistoetan (%)

ET.1.1. Ekintza: “Etxetik euskaraz //“ argitalpena gauzatu –baliabide digital eta ikus-entzunezkoak barne– eta ezagutarazi.

3.2.2. ARDATZ ESTRATEGIKOA: EUSKARA AISIALDI ANTOLATUAN

Euskararen indarberritze prozesuak erakutsi digu belaunaldi berriek euskara jaso eta erabiltzeko hezkuntza-sistemak egin duen ekarpena ezinbestekoa izan dela. Horrela, eremu formalak euskara sustatzeko aukera handiak eskaintzen baditu ere, eremu ez-formalean ere eragin beharra dago.

Euskararen normalizazioari begira, eguneroko bizitzako hainbat arlotan euskararen erabilera handitzea giltzarria da. Eremu ez-formala –aisialdi antolatua[9] eta kirola bereziki– horretarako eremu estrategikoa da. Eremu horrek, komunikazio eta harremanetarako espazio naturala izanik, harreman sozialak eraikitzeko, euskararen erabilera sustatzeko eta hizkuntza ohiturak indartzeko aukera paregabea eskaintzen ditu.

Gazteen gaitasunak, motibazioak eta euskararekiko harremanak oso anitzak dira, eta hizkuntza politikek horiei erantzun behar diete. Horregatik, garrantzizkoa da eskolaz kanpoko jardueretan –eta bereziki haur eta gazteei zuzentzen zaizkienetan– euskara erabiltzeko aukera zabalak eskaintzea. Horretarako, haur zein gazteentzako estrategia egokiak proposatzea funtsezkoa da, bere motibazioa eta parte-hartzea bermatzeko; jarduerak ahalik eta pertsonalizatuenak eta malguenak izan behar dira, bere ezaugarrietara egokituta.

Aisialdi antolatuan euskara atsegina izan dadin, jarduera erakargarriak eta motibatzaileak behar dira, taldearen nortasuna hizkuntzarekin lotuz eta teknologia edo baliabide digitalak erabiliz. Familia ere garrantzitsua da, eta haien parte-hartzea sustatuta euskararen erabilera areagotu daiteke.

Aisialdi antolatua oso anitza denez, ahalik eta eragile gehienen arteko lankidetza izatea eta sareak sortzea ezinbestekoa da, esperientziak eta tresna komunak partekatzeko. Hori lortzen den heinean, euskara gazteen eguneroko aisialdi antolatuaren –kirolean bereziki– parte bihurtzeko aukera handia dago, erabilera naturala eta aktiboa bermatuz, eskolatik haratago. Ildo horri jarraituz, euskara eta euskal kultura sustatzea lehentasun estrategikotzat har dadin arlo honetan eskumenak esleituta dituzten beste erakunde publikoen politiketan eta eragile pribatuen jardunetan, lankidetzarako bideak urratuko dira.

Kirol arloan euskararen erabilera sustatzea gizarte osoaren eginkizun partekatu bezala ulertzen da; bereziki, kirol-federazio, kirol-talde eta kirol-jardueretan aritzen diren entrenatzaile, begirale, guraso zein arduradunen euskarazko komunikazio-gaitasunari dagokionez. Kirol prestakuntza euskaraz sustatzea lehentasuna izango da.

Oro har, aisialdi antolatuak gazteei euskaraz komunikatzeko espazioak eskaintzen dizkie: aisialdi-taldeetan, kirol-taldeetan, kultur ekintzetan… Horietan parte hartzeak euskararen

[9] "Aisialdi antolatua" aipatzen denean, pertsona fisiko edo juridiko batek, publikoa edo pribatua izan, antolatutako aisialdia aipatzen da.

erabilera sustatzen lagundu behar du. Bereziki begiraleek dute eragin handiena, eta horien prestakuntza eta jarraipena funtsezko tresnak dira euskararen erabilera sustatzeko.

EAA.1. Helburua: Erakundeen eta sektoreko eragileen arteko koordinazioan eta itunetan oinarritutako estrategia globala bultzatzea, aisialdi antolatuan euskararen presentzia eta erabilera sendotzeko. (ESZ)

EAA.1a) Adierazlea: Estrategian parte hartutako erakunde-kopurua

EAA.1b) Adierazlea: Aisialdi antolatuan euskararen presentzia eta erabilera sendotzeko hartutako Konpromiso-kopurua

EAA.1.1. Ekintza: Kirola euskalduntzen jarraitzeko estrategia diseinatu.

EAA.1.2. Ekintza: Aisialdi antolatuan euskararen presentzia eta erabilera sendotzeko erakunde arteko itunak edota konpromisoak sustatu.

EAA.1.3. Ekintza: Aisialdi antolatuko eta kirol arloko eragileekin konpromisoak sustatu, baita euskararen erabileran erreferenteak ikusarazi ere.

EAA.1.4. Ekintza: EABren Batzorde-atal Berezia sortu eta martxan jarri.

3.2.3. ARDATZ ESTRATEGIKOA: EUSKARA EREMU PUBLIKOAN

Euskal sektore publikoan sartzen dira honako hauek: EAEko administrazio orokorra, lurralde historikoetako foru-administrazioak eta toki-administrazioak, baita haien guztien administrazio instituzionala eta haien mende eta haiei atxikita dauden gainerako erakunde instrumentalak ere.

Talde honetakoak dira, halaber, atxikimendu-erregimenik ez duten nortasun juridiko independenteko erakunde publikoak ere, hala nola, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea, Lan Harremanen Kontseilua... baita Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU) ere.

EAEko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen zuen 86/1997 Dekretua indargabetuaren aplikazio-eremuaren eraginpeko erakundeek (Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak, udalak...) ibilbide luzea egin dute euskararen normalizazioan: hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun-datak aspaldi ezarrita dauzkate, eta hizkuntza plangintzarako tresnak normaltasunez erabiltzen dituzte. Erakunde horien hizkuntza-metodologia bateratuta dago (KEMEN), helburu estrategikoak zehaztuta, aldian aldiko ebaluazioak egiten dira eta hortik ateratako datuak eskura daude. Gauzak horrela, erakunde instrumentalen normalizazio prozesuak lehentasuna izango du.

Orain, Euskal Sektore Publikoan Euskararen Erabilera Normalizatzeko 19/2024 Dekretua indarrean dago, aipatutako 86/1997 Dekretua ordezkatzen du, eta hor jasotakoa sektore publikoa osatzen duten erakunde guztietara zabaldu beharra dago; batez ere,

dekretuaren ezarpen esparrura lehenengoz sartzen diren erakunde instrumentaletara (sozietate publikoak, partzuergoak, fundazioak...).

Hala, erakunde instrumentalek 2033ko urtarrilaren 1era arteko epea izango dute dekretu horretan agindutakora egokitzeko. Tarte horretan, beste batzuen artean, bi eginkizun nagusi izango dituzte: alde batetik, lanpostu zerrendetan hizkuntza eskakizunak eta, hala badagokie, derrigortasun-datak ezartzea; bestetik, plangintzarako tresna nagusiak abiaraztea: Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak, Plan Estrategikoa eta Kudeaketa Planak.

Horrenbestez, eta zazpi urteko epea badute ere, ahalegina egin behar da erakunde instrumental guztiek egokitzapen horiek guztiak egin ditzaten ahalik eta azkarren, beti ere foru aldundiekin eta udalekin lankidetzan.

EPU.1. Helburua: Erakunde instrumentalak 19/2024 Dekretuak ezarritakora egokitzea. (HAHNZ)

EPU.1a) Adierazlea: 19/2024 Dekretuak ezarritakora (hizkuntza eskakizunak, derrigortasun-datak eta plangintza) egokitu den erakunde-kopurua

EPU.1.1. Ekintza: Erakunde instrumentalei prestakuntza eta aholkularitza zerbitzua eskaini.

EPU.1.2. Ekintza: Beharrezko baliabide informatikoak garatu.

EPU.2. Helburua: Sektore publikoko erakundeen plangintzari buruzko datu zehatzak izatea. (HAHNZ)

EPU.2a) Adierazlea: Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak, Plan Estrategikoa eta Urteko Kudeaketa Plana onartu eta abian jarri dituen sektore publikoko erakunde-kopurua

EPU.2.1. Ekintza: Sektore publikoko erakundeek Eusko Jaurlaritzak horretarako ezarritako SAREGIN hizkuntza plangintzarako aplikazioa erabiltzen dutela ziurtatu.

EPU.2.2. Ekintza: Sektore publikoko erakundeek erabilitako plan ereduen homogeneizazioa aztertu.

EPU.3. Helburua: Elebide-Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzua sustatzea. (HAHNZ)

EPU.3a) Adierazlea: Elebide Zerbitzuan konponbidea izan duen intzidentzia-kopurua

EPU.3.1. Ekintza: Elebide Zerbitzua herritarren artean ezagutzera eman.

EPU.3.2. Ekintza: Elebide Zerbitzuan jasotako intzidentzietatik konponbidea izan dutenen kopurua handitu.

3.2.4. ARDATZ ESTRATEGIKOA: EUSKARA EREMU PRIBATUAN

Eremu sozioekonomiko pribatuan euskararen erabilera sustatzeak jauzi kualitatiboa ematea eskatzen du, eta hizkuntzen kudeaketa garatzeko ahalegin handia egin beharko da.

Lan mundurako sarbide izan ohi diren lan-praktiketatik hasita, euskara lan- eta zerbitzu-hizkuntza izan dadin, aukerak zabaldu behar dira. Lan munduak gizartea goitik behera zeharkatzen duenez, ezartzen diren estrategiek gizartea bere osotasunean hartu behar dute, eraginkorrak izan daitezen. Lan munduak eragile askori eragiten die, nahiz eta ardurak eta erantzukizunak askotarikoak izan, eta guztiek dute zeresana.

Azken hamarkadetan, gizartea batez ere hezkuntza-sistemaren bidez euskaldundu da. Ondorioz, lanean hasten diren gazte askorentzat euskara ez da bere lehen hizkuntza, baina kasu batzuetan lantokia euskara erabiltzeko gune garrantzitsu bihurtzen da; izan ere, eguneroko bizitzan batez ere gaztelania erabiltzen duten arren, lana euskaraz egiten dute. Gainera, euskara lehen hizkuntza duten gazteentzat, eremu sozioekonomikoak aukera asko eskain ditzake euskara eremu informaletik kanpo erabiltzeko.

Horrela, bi erronka nagusi daude lan munduan: batetik, euskara ez dakiten langileei euskara ikastea erraztea; bestetik, euskara dakitenek euskara erabiltzea sustatzea.

Kontuan izan behar da datozen urteetan lanean hasiko diren gazteek euskara jakitea ia bermatuta dagoela, horietako gehienek euskaraz ikasi dutelako. Nolanahi ere, lan munduan sartzen diren guztiak ez datoz hezkuntza-sistematik zuzenean. Izan ere, gero eta etorkin gehiago sartzen ari dira, lan batzuetan bereziki, gehienetan euskararik jakin gabe.

Lanean ari diren eta euskara ez dakiten pertsonek zein etorri berriek euskara ikasteko erraztasunak behar dituzte. Horretarako, funtsezkoa da ikastaro espezifikoak antolatzea lantokian bertan, lanorduetan, zein lanorduz kanpo. Lana, ikasketak eta kontziliazioa bateragarri egiteko ahalegina egin behar da.

"Lanera" egitasmoa izango da egungo proiektuak eta politikak bateratzeko markoa, horiek guztiak estrategia bakar batean lerrokatzeko.

EPR.1. Helburua: Langileen artean euskararen ezagutza areagotzea. (HIKZ)

EPR.1a) Adierazlea: 16 urte edo gehiagoko biztanleria landunaren euskararen ezagutza

EPR.1.1. Ekintza: Enpresetan euskararen ezagutza sustatu.

EPR.2. Helburua: Lan munduan euskararen erabilera areagotzea. (HIKZ)

EPR.2a) Adierazlea: 16-65 urte bitarteko biztanleen euskararen erabilera lanean

EPR.2.1. Ekintza: Eremu sozioekonomiko pribatuan euskararen erabilera sustatu.

EPR.2.2. Ekintza: Enpresetako lan-praktikak euskaraz egitea bultzatu.

EPR.2.3. Ekintza: Merkataritzan, ostalaritzan eta finantza entitateetan euskararen erabilera areagotzeko estrategiak landu.

EPR.2.4. Ekintza: EABren Batzorde-atal Berezia sortu eta martxan jarri.

EPR.3. Helburua: Enpresetan hizkuntza-kudeaketa lantzea. (HIKZ)

EPR.3a) Adierazlea: Euskararen erabilera plana duen enpresa-kopurua

EPR.3.1. Ekintza: Enpresetan euskara kudeatzeko aholkularitza zerbitzua eskaini.

EPR.3.2. Ekintza: Enpresen arteko koordinazioa sendotu euskara sustatzeko.

EPR.3.3. Ekintza: Enpresetan euskara kudeatzearen onurak zabaltzeko diskurtsoak landu.

EPR.4. Helburua: Ziurtagirien sistema berrikustea, sustatzea eta aitortza publikoa egitea. (HIKZ / HAHNZ)

EPR.4a) Adierazlea: Ziurtagiria edota aitortza publikoa jaso duen erakunde-kopurua

EPR.4.1. Ekintza: Enpresetan euskara kudeatzeagatik dauden ziurtagiriak eta aitortzak ezagutarazi eta enpresa gehiago erakarri.

3.2.5. ARDATZ ESTRATEGIKOA: EUSKARAREN ARNASGUNEAK ETA ERABILGUNEAK

Euskararen erabilera handitzeko, garrantzitsua da euskara eroso erabili ahal izateko baldintzak zein guneak zaintzea eta indartzea.

Horrek eskatzen du udalerri euskaldunak eta arnasgune[10] direnak babestea eta sendotzea; era berean, eremu ez euskaldunetan euskaraz aritzeko erabilguneak[11] edo eremu sozio-funtzionalak sortzea.

Gaur egun hirigune eta eskualde buruetan gero eta euskaldun gehiago daudela kontuan izanik, berebiziko garrantzia du bertan euskararen erabilguneak indartzeak.

AR.1. Helburua: Euskaraz eroso aritzeko baldintzak eta espazioak sortzea. (HIKZ)

AR.1a) Adierazlea: Euskararen erabilera arnasguneetan eta erabilguneetan

[10] *Euskararen Plan Estrategikoa*ren testuinguruan, *Aroa*n bezala, arnasgunea da eguneroko komunikazio-jardun arruntetan bertakoen artean euskara nagusitzen den gune sozio-geografikoa. *Inkesta Soziolinguistikoa*ren arabera, 4. gunearen ezaugarriak dituen espazioa da. Ikusi baita *Euskararen arnasguneak: definizioaren eta erronken berrikuspena* dokumentua ere [https://arnasagara.eus/wp-content/uploads/2024/03/Euskararen-arnasguneak_2024ko-martxoa.pdf].

[11] *Euskararen Plan Estrategikoa*ren testuinguruan, euskararen erabilgunea edo eremu sozio-funtzionala da euskaraz aritzeko espazio edota testuinguru segurua.

AR.1.2. Ekintza: Eremu sozio-geografiko euskaldunetan (arnasguneak) euskararen erabilera zaintzeko eta, hala badagokio, areagotzeko neurriak sustatu.

AR.1.3. Ekintza: Eremu sozio-geografiko ez euskaldunetan euskararen erabilera zaintzeko eta areagotzeko neurriak sustatu.

AR.1.3. Ekintza: EABren Batzorde-atal Berezia sortu eta martxan jarri.

3.2.6. ARDATZ ESTRATEGIKOA: EUSKARA HEDABIDEETAN ETA IKUS-ENTZUNEZKOETAN

Euskarazko hedabideak euskaraz edukiak sortu, zabaldu eta partekatzen dituzten komunikazio-plataforma edo kanalak dira.

Eusko Jaurlaritzaren helburuetako bat da euskarazko edukien ekoizpena sustatzea, gizartea gertutasunetik, sinesgarritasunetik eta aniztasunetik informatuta egon dadin. Euskarazko hedabideek informatu, entretenitu eta euskararen erabilera sustatu behar dute, baliabide tradizionalak zein digitalak erabiliz.

Euskararen erabilera arautzen duen 10/1982 Legeak jasotzen duen moduan, "herritar guztiei aitortzen zaie gizarte-hedabideen aldetik euskaraz zein gaztelaniaz informatuak izateko eskubidea. Horretarako, hedabideetan euskararen presentzia areagotzera bideratutako neurriak hartuko ditu Jaurlaritzak, hizkuntza ofizial bien erabilera arian-arian berdintzeraino" eta, era berean, "Autonomia Erkidegoko hedabideetan euskara lehentasunez erabili dadin bultzatuko du".

Idatzizko edota ikus-entzunezko formatuan nahiz euskarri digitalean, tokiko informazioaren esparruan, euskarazko hedabideen jardunak informazio-eskaintzaren aniztasuna sustatuko du; euskararen ezagutzan trebatu nahi duten ikasle eta adituei corpus etengabe berritua eskainiko die eta, aldi berean, euskararen erabilera sendotuko du. Azken finean, euskararen normalizazioan lagunduko du.

Euskarazko ikus-entzunezkoak gero eta ugariagoak eta anitzagoak dira, eta euskaldunek gero eta aukera gehiago dituzte euskarazko edukiak kontsumitzeko. Hori bai, beharrezkoa da horiei ikusgarritasuna ematea, euskararen eremuan zein euskararen eremutik kanpo, arloko eragileekin elkarlanean.

Beste hizkuntza batzuetan egindako filmek, balio zinematografikoa izateaz gain, euskararen erabilera sustatzeko balio dezakete. Beraz, euskarara bikoiztutako kalitatezko filmak eta jatorrizko bertsioan daudenak euskaraz azpititulatuta eskaintzea beharrezkoa da. Horrekin batera, euskaraz ekoizteko aukera indartu behar da.

Garrantzitsua da zinema euskaraz ikusteko ohitura zabaltzea, euskaraz ekoitzitako nahiz euskarara bikoiztutako filmak izan, eta ikus-entzuleak areagotzea. Horretarako, zinema euskaraz kontsumitzeko informazio eguneratua eta erraztasunak eman behar dira.

EHI.1. Helburua: Euskarazko hedabideen eragina eta kontsumoa areagotzea. (ESZ)

EHI.1a) Adierazlea: Euskarazko hedabideen eguneroko kontsumitzaileak (%)

EHI.1.1. Ekintza: Euskarazko hedabideen premiak eta erronkak aztertu.

EHI.1.2. Ekintza: Euskarazko hedabideen profesionalizazioa sustatu.

EHI.1.3. Ekintza: Dirulaguntza deialdietan kalitate eta berrikuntza irizpideak lehenetsi.

EHI.1.4. Ekintza: Euskarazko hedabideak sustatu.

EHI.2. Helburua: Gaztelaniazko hedabideetan euskararen erabilera areagotzea. (ESZ)

EHI.2a) Adierazlea: Euskara erabiltzen duen hedabide-kopurua

EHI.2.1. Ekintza: Gaztelaniazko hedabideetan euskararen erabilera areagotzeko erraztasunak eman.

EHI.3. Helburua: Euskarazko ikus-entzunezko edukien erabilera areagotzea. (ESZ)

EHI.3a) Adierazlea: Euskarazko ikus-entzunezkoen ikusle-kopurua

EHI.3.1. Ekintza: Euskarazko ikus-entzunezko edukiak sustatu eta ikusgarritasuna handitu.

EHI.3.2. Ekintza: Beste hizkuntza batzuetan dauden filmak euskaraz eskaini.

EHI.3.3. Ekintza: Azpitituluak jartzeko eta euskarara bikoizteko programen inguruko politikak landu.

EHI.3.4. Ekintza: Ikus-entzunezko, zine edo kateei begira hizkuntza estrategia bateratua definitu.

3.2.7. ARDATZ ESTRATEGIKOA: EUSKARA INGURUNE DIGITALEAN

Azken urteotan, pertsonen arteko komunikazio moduak eraldaketa handia izan du, eta ingurune digitalak egundoko pisua hartu du horretan. Gainera, baliabide digitalak lagungarriak dira eguneroko bizitzan; aisialdian, lanean, kulturgintzan...

Euskara gero eta ageriago dago ingurune digitalean, eta euskararen ikusgarritasun hori bermatzeko eta sendotzeko neurriak hartzen jarraitu behar da. Erronka nagusia da euskarazko edukiak sortzea eta eduki horiek ingurune digitalean erabili daitezen sustatzea. Halaber, ezinbestekoa da terminologia zabala eta zehatza finkatzea eta, ondoren, digitalizatzea; hortik abiatuta, proiektu digitalak garatu ahal izateko, euskara produktuen eskaintzan dagoen hizkuntzetako bat izanik.

Adimen artifizialak eta eraldaketa digitalak dakartzaten erronkei eta aukerei aurre egiteko hizkuntza teknologien ikerketa irekia eta publikoa sustatu behar da; ezagutza teknologikoa bultzatu eta euskararen arrakala digitala txikitzeko bidea lantzen jarraitu.

Berrikuntza, erabilgarritasuna, erakargarritasuna, euskarazko edukiak etengabe garatzea eta eguneratzea batzen dituen estrategia osatu behar da. Zeharkakotasuna eta lankidetza lan-ardatzak izango dira hizkuntza teknologian euskararen erabilera sustatzeko.

ID.1. Helburua: Euskarazko aplikazio eta baliabide digitalak sustatzea eta zabaltzea. (ESZ)

ID.1a) Adierazlea: Euskarazko aplikazio eta baliabide digital kopurua

ID.1.1. Ekintza: Adimen Artifizialaren ikerketan aurrera egin.

ID.1.2. Ekintza: Kalitate handiko euskarazko corpus digitala sortzea sustatu.

ID.1.3. Ekintza: Pantailak eta gailuak euskaraz konfiguratu eta erabiltzea sustatu.

ID.2. Helburua: Euskarazko eduki digitalak sortzea, sustatzea eta zabaltzea. (ESZ)

ID.2a) Adierazlea: Diruz lagundutako egitasmo-kopurua

ID.2.1. Ekintza: Komunitatearen parte-hartzea eta lankidetza sustatu.

ID.2.2. Ekintza: Herritarrentzako erabilera irekiko azpiegitura digitalak bultzatu.

ID.2.3. Ekintza: Ingurune digitalean euskaraz dauden edukiak kontsumitzea sustatu.

ID.2.4. Ekintza: EABren Batzorde-atal Berezia sortu eta martxan jarri.

3.2.8. ARDATZ ESTRATEGIKOA: ETORKINAK

INEren arabera, 2025eko urtarrilaren 1ean, atzerrian jaiotako 316.942 pertsona bizi ziren EAEn, biztanleria osoaren % 14,1, Estatuko batez bestekoaren azpitik (% 19,9). 2025ean, atzerritar jatorriko biztanleen hazkundeari eutsi zaio; urte batetik besterako hazkundea 20.000 pertsonatik gorakoa da. Jatorrizko herrialde nagusia (2024ko urtarrilaren 1ean) Kolonbia da (% 13,5), ondoren Maroko (% 11,4), Nikaragua (% 6,1), Venezuela (% 5,2) eta Errumania (% 4,9). Horrela, hazkunde demografikoa gertatzen ari bada, atzerritik etorritako biztanleei esker da.

Atzerritar jatorriko haur nahiz gaztetxoak euskarara hurbiltzen ari dira pixkanaka hezkuntzako D ereduaren bidez. Horrela, ikasle horiei ezagutza nahiz erabilera aukera berriak sortzen dizkie euskarak. Horrenbestez, beharrezko baliabideak ezarri behar dira ikasle horien ongizate soziolinguistikoa bermatzeko.

Helduen kasuan, oinarrizko komunikazio beharrari erantzuteko lehen hautu linguistikoa gaztelania izan ohi da. Ingurune askotan, euskara urrun ikusten dute, eta gehienek ez dute euskarara baldintza egokietan hurbiltzeko baliabide sozioekonomiko eta erreferentzia kultural nahikorik. Horregatik, ezinbestekoa da euskara eskuratzeko baldintza egokiak sortzea eta indartzea, euskara ulertu eta hitz egin dezaten laguntzea, harrera protokoloen nahiz hizkuntza politiken bidez eta hezkuntza-sistemaren bidez.

Horien bidez, eta modu koordinatuan, euskararen komunitatearen berri eman daiteke, baita euskara ikasi eta erabiltzeak dakartzan onuren berri ere: gizarte inklusioa erraztea, lan aukerak hobetzea... Horrela, etorkinen etorrera euskararen normalizazioan palanka bihur dadin, "Ate berriak" egitasmoa gauzatu nahi da.

HABEren azken ikerketaren arabera[12], euskaltegien ikasle-harrobia aztertuz, euskara ez dakitenen artean 10etik 6k nahiko luke euskara ikasi; % 62,3 dira ikasle potentzialak (432.300 lagun inguru EAEn). Horien erdia baino gehiago sektore pribatuko zerbitzuetan dago, batez ere merkataritza edota ostalaritzan, eta neurri apalagoan industrian. Bi sektore horiek hartzen dituzte ikasle-harrobiaren bi herenak. Horien % 37,2, bi urte baino lehenago, euskaltegiratuko dira. Horien erdiak dira atzerrikoak eta 25-39 urte bitartekoak. Motibazioari dagokionez, familiako harremanetan eta harreman sozialetan euskara erabiltzea da nagusi, eta ondoren lan aukera gehiago izatea. Beraz, ikerketaren arabera, erronka interesgarriak daude aurrera begira.

Plan honek atzerritik edo beste autonomia erkidego batzuetatik datozen herritarrei harrera eta arreta egokia eskaini behar die, eroso eta gustura senti daitezen, hori baita gizartearen ongizatearen termometrorik egokiena.

Horiek horrela, orain arte euskarara hurbildu ez diren herritarrak erakartzeko, euskarari prestigioa ematen jarraitu behar da, euskara erabiltzearen aldeko jarrerak eta diskurtsoak indartzeaz gain. Gizarteari erakutsi behar diogu hizkuntza tresna egokia dela bizikidetza indartzeko eta gizartea kohesionatzeko.

ETO.1. Helburua: Etorkinen euskara-gaitasuna areagotzea. (HABE)

ETO.1a) Adierazlea: EAEko herritarren euskara-gaitasuna, jatorriaren arabera

ETO.1.1. Ekintza: Herritarren jatorriaren eta beharren araberako eskaintza sustatu.

ETO.2. Helburua: Euskararen aldeko jarrera areagotzea. (HIKZ)

ETO.2A) Adierazlea: Euskararekiko jarrera, jatorriaren arabera (%)

ETO.2.1. Ekintza: Euskararen eta euskal kulturaren balioak gizarteratu; hizkuntza aniztasuna eta kulturartekotasuna landu.

ETO.3. Helburua: Atzerritar jatorriko herritarrei euskararen eta euskal kulturaren berri ematea. (HIKZ)

ETO.3a) Adierazlea: Atzerritar jatorriko herritarrak euskarara hurbiltzeko ekimen-kopurua

ETO.3.1. Ekintza: Prestakuntza eta sentsibilizazioa indartu.

ETO.3.2. Ekintza: Atzerritar jatorriko herritarren seme-alabak euskarara hurbildu.

[12] "Azken bost urteetan euskaltegietan matrikulatu ez diren EAEko herritar helduen arrazoiak aztertzeko ikerketa: emaitza nagusiak", *Monografiak* 12. HABE (Siadeco), 2023.

ETO.3.3. Ekintza: Bisitariek euskara euskal kulturaren bidez ezagut dezaten bultzatu.

3.3. HELBURU NAGUSIA: EUSKARAREN PRESTIGIOA

3.3.1. ARDATZ ESTRATEGIKOA: EUSKARA MUNDUAN

Euskara gure kulturaren eta nortasunaren ikurra da, eta hizkuntza politikaren ardatz estrategikoetako bat euskara nazioartekotzea da. Europa da euskara mundura zabaltzeko ate nagusia eta, horregatik, esparru politiko horretan bi jardunbide daude martxan: lehenengoa, Europan euskararen ofizialtasuna lortzeari dagokiona; bigarrena, EAEtik kanpoko euskararen presentziari eta ikusgarritasunari dagokiona.

Ofizialtasuna eta aitortza instituzionala ezinbestekoak dira hizkuntza babestu eta indarberritzeko. Hizkuntza aniztasuna errealitate bat da eta hori errespetatzea Europar Batasunaren funtsezko balioa.

Europar Batasuneko erakundeek erabilera ofizialeko 24 hizkuntza dituzte. Hizkuntza horietan idatzita daude erakundearen eratze-itunak eta legedi eratorria, eta lan-hizkuntza gisa ere erabiltzen dira. Hala ere, gutxiago dira hizkuntza ofizialak estatu kideak baino, horietako batzuek hizkuntza bera partekatzen baitute.

Europar Batasunean euskara ofiziala ez bada ere, 2005etik aurrera egindako akordio politikoen ondoren, euskararen erabilera ahalbidetzen da hainbat egoeratan (herritarrek Europar Batasuneko erakunde eta organoei igorritako idatzizko komunikazioetan, Autonomia Erkidegoek eta Eskualdeetako Komiteak parte hartzeko irekita dauden Ministroen Kontseiluen bilkuretan, besteak beste). Eusko Jaurlaritzak euskararen ofizialtasunaren aldeko urratsak egin ditu eta egiten jarraitzen du Europar Batasunean.

Europako Parlamentua Europar Batasuneko gainerako erakundeetatik bereizten da ahalik eta eleaniztasun-mailarik handiena bermatzeko duen betebeharragatik. Izan ere, Europako legeriaren arabera, Europar Batasuneko edozein herritarrek du eskubidea Parlamenturako hauteskundeetara aurkezteko eta bertako lanaren berri izateko, galderak egiteko eta erantzunak bere hizkuntzan jasotzeko.

Europatik Estatura etorrita, Eusko Jaurlaritzak, Kataluniako Generalitateak eta Galiziako Xuntak hizkuntza politikari buruzko lankidetza protokoloa sinatu zuten 2007an. Gerora, Illes Balearseko Gobernuak, Nafarroako Gobernuak eta Valentziako Generalitateak bat egin zuten hitzarmenarekin. Hitzarmen horren helburuetako bat da euskara, katalana eta galegoa beren mugetatik kanpo ere egon daitezen beharrezkoak diren estrategiak elkarlanean jorratzea. Horren adibidea da ERASMUS+ programako OLS (*Online Language Support*) plataforman hizkuntzok jasotzea lortu izana. Hortaz, ezinbestekoa da bide horretatik aliantzak lantzen eta elkarlana sustatzen jarraitzea Estatuan –gaztelaniaz gain– beste hizkuntza ofizial batzuk dituzten gobernuekin.

Euskararen lurraldera etorrita, Eusko Jaurlaritzak mugaz gaindiko lankidetzak bideratzen ditu Nafarroako Gobernuarekin eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoarekin, euskara eta euskal kultura sustatzeko *Hiruko Ituna* hitzarmenaren bidez.

Azkenik, nazioartean hizkuntza gutxituen arteko lankidetza sustatu nahi da: euskarak izan duen bilakaera balioan jarri eta euskararen esperientzia arrakastatsutik abiatuta hizkuntza gutxituen indarberritze prozesuak bultzatu eta ezagutarazteko bidea egin.

Horrekin batera, "Euskara munduan" programa aipatu behar da; horren bidez, mundu osoko euskal giza kolektibitateen artean euskararen eta euskal kulturaren ezagutza bultzatzen da. Era berean, euskal ikasketak sustatzen dira nazioarteko unibertsitate eta goi mailako zentroetan, euskara eta euskal kulturako irakurletza eta katedra programaren bidez. Horien osagarri, ikerketa-programak ere ari dira sortzen, ikerlari berri nahiz eskarmentudunak euskal ikasketetara hurbiltzeko xedez. Zeregin horretan Etxepare Euskal Institutuaren ekarpena garrantzitsua da.

Beraz, Europako erakundeetan euskararen ofizialtasuna eta erabilera lortzeko ekimenaz gain, mugaz gaindiko lankidetza bultzatu beharra dago, euskararen lurraldean zein lurraldetik kanpo, euskarak eta euskal kulturak munduan presentzia handiagoa izan dezaten.

EM.1. Helburua: Euskara Europar Batasuneko hizkuntza ofiziala izan dadin pausoak ematea. (HIKZ)

EM.1a) Adierazlea: Europar Batasunean euskara hizkuntza ofiziala izateko ekintzen betetze-maila

EM.1.1. Ekintza: Euskara Europan hizkuntza ofiziala izan dadin ekimen politikoa indartu.

EM.1.2. Ekintza: Euskara Europan hizkuntza ofiziala izan dadin beharrezko diren eskakizunei erantzun.

EM.1.3. Ekintza: Hizkuntza politiken inguruko bilguneetan euskarak presentzia izateko aukerak garatu.

EM.2. Helburua: Gaztelaniaz gain hizkuntza ofiziala duten Estatuko gobernuekin elkarlanean jarraitzea, Estatuko hizkuntza aniztasuna sustatzeko. (HIKZ)

EM.2a) Adierazlea: Estatuko Protokoloa lantzen jarraitzeko ekimen-kopurua

EM.2.1. Ekintza: Estatuko Protokoloa garatzen jarraitu eta indartu.

EM.2.2. Ekintza: Hizkuntza Kontseiluarekin osagarritasuna landu.

EM.2.3. Ekintza: Estatuko Hizkuntzen Bulegoarekin lankidetza bideak zehaztu.

EM.2.4. Ekintza: Estatuko hizkuntza institutuen arteko lankidetza eta koordinazioa sustatu.

EM.3. Helburua: Nafarroarekin eta Iparraldearekin elkarlanean jarraitzea, *Hiruko Ituna* hitzarmenaren babespean, euskararen lurraldea sendotzeko. (HIKZ)

EM.3a) Adierazlea: *Hiruko Ituna* hitzarmena lantzeko ekimen-kopurua

EM.3.1. Ekintza: Mugaz gaindiko lankidetza indartu.

EM.4. Helburua: Nazioartean hizkuntza desberdinen arteko elkarlana sustatzea. (HIKZ)

EM.4a) Adierazlea: Hizkuntza gutxituak sustatzeko nazioarteko erakundeekin sinatutako lankidetza-hitzarmenak

EM.4.1. Ekintza: Euskararen esperientziatik abiatuta, hizkuntza gutxituen indarberritze prozesuak bultzatu eta ezagutarazi.

EM.4.2. Ekintza: Indarberritze prozesuan dauden hizkuntzen nazioarteko sarea sortu.

EM.5. Helburua: Euskarak eta euskal kulturak nazioartean presentzia handiagoa izatea. (HIKZ / Etxepare Euskal Institutua)

EM.5a) Adierazlea: Euskal etxeetako euskara ikasle kopurua

EM.5b) Adierazlea: Euskara eta euskal kulturako irakurletza eta katedretako matrikula kopurua

EM.5c) Adierazlea: Euskara eta euskal kulturako irakurletza, katedra eta ikerketa programa kopurua

EM.5.1. Ekintza: Euskararen irakaskuntza bultzatu nazioartean.

EM.5.2. Ekintza: Euskal ikasketak eta horren inguruko ikerketak sustatu nazioarteko unibertsitate eta goi mailako zentroetan.

EM.5.3 Ekintza: Euskal kulturaren eta sorkuntza garaikidearen nazioarteko proiekzioa sustatu.

3.4. HELBURU NAGUSIA: EUSKARARI BURUZKO DATUAK

3.4.1. ARDATZ ESTRATEGIKOA: IKERKETAK

Euskara indarberritzeko prozesuak etengabeko ikerketa behar du, bai hizkuntza politikak bideratzeko, bai horien eragina ebaluatzeko. Euskararen egoera eta bilakaera zein euskararen inguruko jarrerak ezagutzea beharrezkoa da hizkuntza normalizazioa sustatzeko erabaki zuzenak eta eraginkorrak hartzeko.

Bide horretan, euskararen ekosistema sakon ezagutzeko ezinbesteko tresnak edukitzea oinarrizkoa da: ikerketa kuantitatiboak zein kualitatiboak egin ahal izateko baliabideak. Ikerketa kuantitatiboek pisu erlatibo handia izan dute orain arteko ikerketetan. Aurrera begira, esparru zehatzetan egindako azterketa kualitatiboek pisu handiagoa izango dute. Izan ere, diagnostikoetan badira zenbait ondorio, datu multzoekin ikertzeko zailak direnak, balorazio eta azterketa kualitatiboa beharrezkoa dutenak.

Horiek horrela, ikerketek gizartearen argazki orokorra izateko bidea ematen dute: euskara zeharkako politika gisa kudeatzeak dituen aukeren berri izateko, euskara elkarbizitzarako elementu izateko indarguneak argitzeko, euskara ezagutzea eta erabiltzea eragiten duten gakoak identifikatzeko, euskara ezagutzeko eta erabiltzeko motibazioetan sakontzeko… Azken batean, euskararekiko eta euskal kulturarekiko atxikimendua eta hurbilketa areagotzeko beharrezkoak diren ainguraketak bilatzeko.

Ezagutza soziolinguistikoaz gain, hizkuntza eta teknologia, hizkuntza eta generoa, hizkuntza eta ekonomia… uztartzeak errealitatea begirada zorrotzez ezagutzen lagunduko digute. Horregatik, edozein arlotako ikerketetan euskarari buruzko informazioa jasotzea eta prozesatzea bultzatu behar da, euskararen aldagaia txertatuz.

Ezagutzan sakontzea bezain garrantzitsua da ezagutza hori egoki gizarteratzea eta komunikatzea. Horrek ezagutza partekatzeko sareak sortu eta baliatzea eskatzen du, baita praktika onak modu sistematizatuan zabaltzea ere.

IK.1. Helburua: Euskararen egoeraren eta bilakaeraren ezagutzan sakontzea. (HIKZ)

IK.1a) Adierazlea: Euskararen inguruko ikerketa-kopurua

IK.1b) Adierazlea: Euskararen inguruko kongresu edo topaketa kopurua

IK.1.1. Ekintza: Euskararen egoera eta bilakaera zein euskararen inguruko jarrerak ezagutzeko ikerketak egin eta sustatu.


IK.1.2. Ekintza: Euskararen inguruan egindako ikerketen ezagutza gizarteratu.

IK.1.3. Ekintza: Kongresuak edo topaketak egin euskarari eta hizkuntza politikari buruzko ezagutza akademikoa eta soziala batzeko.

4. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bi urtean behin euskararen aurrekontu eta baliabide publikoen azterketa estatistikoa egiten du, euskal administrazio publikoek euskararen sustapenari egiten dioten ekarpen ekonomikoa eta horren bilakaera ezagutzeko. Azken azterketa 2024koa da.

2024an, euskal erakunde publikoek 193.744.613 milioi euro bideratu zituzten euskara sustatzera (aurrekontu ez kontsolidatua): Eusko Jaurlaritzak EAEko aurrekontu osoaren % 60,1 jarri zuen, 5.000 biztanletik gorako udalerriek % 22,8, foru aldundiek % 10,4 eta hiriburuek % 6,8.



Iturria: *Siadeco, 2024*

Jarduera-eremuen arabera, honela banatu ziren euskararen aurrekontuak (Siadeco, 2024):

Helduen euskalduntzea-alfabetatzea	36,2
Hezkuntza arautua	12,2
Erakundeko euskara arloaren funtzionamendu gastuak	11,4
Administrazio publikoaren euskalduntzea	9,2
Hedabideak	9,0
Aisialdi antolatua eta kirola	4,6
Kultura	4,5
Lan mundu pribatua	2,5
Gizarte aktibazioa	2,5
Gobernantza	2,2
Ikerketak	1,9
Ingurune digitala eta adimen artifiziala	1,5
Toki entitate eta mankomunitateentzako dirulaguntza orokorrak	1,1
Familia transmisioa	0,6
Immigrazioa eta gizarte aniztasuna	0,6
GUZTIRA	100

*Euskararen Plan Estrategikoa*n aurreikusitako helburu nagusiak behar bezala garatzeko aurrekontu-zuzkidura handia beharko da. Dagokion kudeaketa planean ekitaldi bakoitzerako ezarritako helburuen eta planen arabera gauzatuko da aurrekontu-aurreikuspena, eta abenduaren 23ko 7/2025 Legean jasotako Hizkuntza Politikaren aurrekontua –4711 programa– izango du oinarri (7/2025 Legea, 2026ko ekitaldirako EAEko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena). Aurrekontu horretan (93.529.364), 2025eko aurrekontuarekin alderatuta % 6ko igoera orokorraz gain (88.140.412), planean jasotako ardatz estrategikoen aurrekontu-igoera zehazten hasi da, eta horien artean azpimarratzekoa da % 13,6ko igoera sektore pribatuko lantokietan euskararen erabilera eta presentzia sustatzeko dirulaguntzetan edo % 8,4ko igoera HABEren aurrekontuan.

Horrela, helduen euskalduntzea areagotzeak eta doakotasunean aurrerapausoak emateak diru ekarpen handia beharko du. Gehigarri hori, nagusiki, ikasleen matrikularen doakotasuna sustatzeko izango da, orain arte egindako urratsak sendotzeko eta urtetik urtera aurrera jarraitzeko. Horrez gain, ikas-prozesua egokitu eta malgutzeko eskaintza zabalagoa egin nahi da; horretarako, tutorizatutako autoikaskuntza eta ikaskuntza erdi-presentziala indartuko dira, eta horrek guztiak baliabide gehigarrien beharra ekarriko du. Gainera, behar bereziak dituzten ikasleei egokitutako euskara eskaintza zabaldu nahi da. Azkenik, etorkinak euskarara hurbiltzeko programak indartuko dira datozen urteotan.

Aisialdi antolatuari dagokionez, helburu nagusia estrategia global bat bultzatzea da, elkarlanean eta itunetan oinarritua, euskararen presentzia eta erabilera sendotzeko.

Lan munduan, proiektuak bateratzeko eta euskararen erabilera sustatzeko markoa izango da "Lanera". Eragin nahi diren enpresa-kopuruaren arabera, aurreikusitako gastua ezberdina izango da.

Datozen urteetan, oso garrantzitsua izango da euskararen arnasguneak babestea eta indartzea eta erabilguneak sortzea, herritarrek erosotasun osoz hitz egin dezaten.

Hedabideen kasuan, elkarlanean arituko da komunikazio-proiektuak bultzatzeko eta audientzia potentzial berriak bilatzeko. Oinarrian, eraldaketa digitala, kalitatea eta proiektuen dimentsioa zabaldu nahi dira.

Euskara modu eraginkorrean integratuko da ingurune digitalaren berrikuntza- eta garapen-prozesuetan. Ingurune digitalean euskara ageriago egon dadin ekintzak garatuko dira. Horretarako hainbat zeregin beteko dira: Teknologia Digitalerako baliabide teknologikoen gaineko hausnarketa, euskarazko corpusa, ikerketa, baliabideen sustapena, adimen artifizialeko tresnak sortzeko aholkularitza...

Etorkinen gaiak ere aparteko trataera behar du. Horrela, “Ate berriak” egitasmoak etorkinak euskarara hurbiltzeko eta hizkuntza ikastea sustatzeko neurri proaktiboak izango ditu, integrazio eta kohesio sozialerako oinarrizko atal gisa.

Euskara zabaltzeko, lankidetza areagotzea nahitaezkoa da. Horrela, euskararen lurraldetik hasita, Nafarroako zein Iparraldeko eragile estrategikoekin elkarlana indartuko da; eta euskararen lurraldetik kanpo, bai estatuan bai nazioartean, hizkuntza aniztasuna sustatzeko lanean jarraituko da.

Planean ezarritako neurrien ebaluazioa funtsezkoa da horien eragina ezagutzeko. Horretarako, datuen analisiak finkatzea eta areagotzea aurreikusi da, ikuspegi kualitatiboari garrantzi berezia emanez.

Euskararen jauzi kualitatiboa, beraz, urteko aurrekontuetan islatuko da, Eusko Jaurlaritzak abian jartzen dituen proiektu estrategikoen bidez, betiere *Jauzia Gara* estrategiaren barruan eta plan estrategiko honetan ezarritakoaren arabera.

5. GOBERNANTZA

Euskararen zeharkakotasuna gogoan, ezinbestekoa da erakundeen arteko harremana bultzatzea. Horregatik, plan hau garatzeko bidelagun izango dira, bakoitzaren egitekoak ahaztu gabe, honako hauek: Eusko Jaurlaritza, Euskararen Aholku Batzordea (EAB), Herri Aginteak Koordinatzeko Batzordea (HAKOBA), EAEko gainerako herri-erakundeak eta askotariko gizarte-eragileak. Izan ere, euskararen erronkak betetzeko beharrezkoa da gizarte osoaren bultzada.

Gobernantza partekatu honetan, Eusko Jaurlaritzako hizkuntza politikan eskumena duen sailari dagokio lidergoa hartzea, zeharkako politikak bultzatzea, lankidetzan aritzea eta helburuak adostea euskararen normalizazioak aurrera egin dezan.

Euskararen normalizazioa gauzatzeko, esku-hartzeak esparru ugaritan gauzatu behar dira, eta horietako batzuetan eragiteko eskumena Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuena, foru aldundiena edo udal mailako erakundeena da. Horregatik guztiagatik, nahitaezkoa da erakunde guztien elkarlana, koordinazioa eta, giza- eta diru-baliabideen optimizazioa hizkuntza politikan eraginkorrak izan gaitezen. Horretara dator dokumentu honen Gobernantzan lidergoa finkatzeko asmo argia.

Horiek guztiak gogoan, Eusko Jaurlaritzako sail guztiek planaren berri izan dute eta ekarpenak egin ahal izan dituzte. Era berean, bai EABko batzordekideek, bai HAKOBAko kideek, bai euskararen normalizazioaren alde lan egiten duten gizarte-erakunde eta eragile askoren bilgune den Euskalgintzaren Kontseiluak ekarpenak egiteko aukera izan dute.

Barneko erakundeak

*Euskararen Plan Estrategikoa*ren jarraipena egiteko batzorde iraunkor bat[13] eratzea aurreikusi da.

[13] Ikusi 6. atala.

Kanpoko erakundeak

Euskararen Aholku Batzordea (EAB)[14]

Hizkuntza normalizazioan diharduten erakunde publiko zein pribatuen ahaleginak eta ekintzak aztertzeko, bideratzeko eta koordinatzeko topagunea da. Batzordekide dira Lehendakaria, Eusko Jaurlaritzako 4 kargudun, foru aldundietako 3 ordezkari, Euskaltzainburua, Euskadiko Udalen Elkarteko (EUDEL) ordezkari 1, Euskadiko Udalen Mankomunitateko (UEMA) ordezkari 1, eta 15 kide; Eusko Legebiltzarrak izendatutako 5 kide, eta 10 aditu. Gainera, idazkaria ere badu, HPSko zuzendarietako bat.

Egiteko hauek ditu, besteak beste: Eusko Jaurlaritzak eskatuta, EAEko hizkuntza normalizazioari buruzko gaiak aztertzea eta ikertzea; euskararen erabilerari buruzko xedapenak ondo ezartzeko behar diren neurriak proposatzea Eusko Jaurlaritzari eta dagokien erakundeei; hizkuntzari loturiko gaietan eskumena duten herri-aginteen jarduera koordinatua bermatzeko neurriak proposatzea, eta indarrean dagoen euskara sustatzeko plan nagusiaren garapenari eta betetzeari buruzko txostenak egitea.

EABk Batzorde Osoa eta Batzorde-atal Bereziak ditu bere jarduera gauzatzeko.

Herri Aginteak Koordinatzeko Batzordea (HAKOBA)

Hizkuntza politikan eskumena duten herri-aginteen jarduna koordinatzeko organo instituzional nagusia da. Batzordekide dira erakunde hauetako ordezkariak: Eusko Jaurlaritza –HPS, HABE, IVAP, Osakidetza, Justizia Sailburuordetza, Hezkuntza Saila eta Segurtasun Saila–, foru aldundiak, hiriburuetako udalak, Euskadiko Udalen Elkartea (EUDEL) eta Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA).

Egiteko nagusi hauek ditu: hizkuntza normalizazio gaietan erakundeen arteko koordinazioa hobetzea eta hizkuntza politikaren lehentasuneko helburuei ekiteko beharrezkoak diren baliabideak aztertzea. Batzordeak lantalde teknikoak antola ditzake, abian jarri nahi dituen proiektuak garatzeko.

NPLD (*Network to Promote Linguistic Diversity*)

Nazioartean, Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko Sareak Europako hizkuntza konstituzional, eskualdeetako eta estatu txikietako hiztunen interesak ordezkatzen ditu. Eusko Jaurlaritza eskubide osoko kide da, HPSk ordezkatuta. Partaide ditu estatuetako nahiz autonomia erkidegoetako gobernuak, GKEak eta hizkuntza plangintzaren alorrean lanean diharduten erakundeak.

[14] Araudia: 10/1982 Oinarrizko Legea, 29. artikulua; Euskararen Aholku Batzordearen 99/2020 Dekretua. EABren Batzorde Osoak Batzorde-atal Bereziak sortzea erabaki dezake gai zehatzak lantzeko.

Xedea da agintari politikoek hizkuntza aniztasuna zehar-balio eta Europar Batasunaren politikaren helburu gisa sustatzea; Europako agintari politikoen eta Europar Batasuneko erakundeen aurrean hausnarketak, ekimenak eta ekintzak proposatzea.

Lankidetzak

HPSrentzat lehentasunezkoa da lankidetza-sareak indartzen eta zabaltzen jarraitzea. Horregatik, gizartearen zein euskalgintzaren ordezkari nagusiekin etengabeko harremana sustatzen jarraituko du, hala nola: Euskaltzaindia, Euskalgintzaren Kontseilua, Taupa Euskaltzaleen Mugimendua, Labayru Fundazioa, Euskal Wikilarien Kultur Elkartea, Hekimen, Tokikom, hedabideak, euskaltegiak..., eta euskara sustatzeko lan egiten duten era askotako elkarte, enpresa eta entitateak.

Hiruko Ituna lankidetza hitzarmena

EAEtik kanpo, euskararen eremuan elkarlanerako egitura nagusia da, EAEko Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuaren Memoria eta Bizikidetza, Kanpo Ekintza eta Euskara Departamentuak eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoak osatua.

Xedea da hiru sinatzaileen arteko lankidetza bultzatzea euskararen sustapenari dagozkion alderdi jakin batzuetan.

Estatuko hizkuntza politika arloko lankidetza protokolo orokorra

Estatuan hizkuntza propioa duten eta ofizialtasun-estatusa duten autonomia erkidego guztien lankidetza esparrua da. Kide dira Eusko Jaurlaritza, Kataluniako Generalitatea, Galiziako Xunta, Balear Uharteetako Gobernua, Valentziako Generalitatea eta Nafarroako Gobernua.

Protokoloak esparru orokor bat eta metodologia bat finkatzen ditu, besteak beste, gai hauen inguruko informazioa trukatzeko: bilakaera soziolinguistikoaren jarraipena egiteko gauzatzen diren azterketa eta ikerlanak, argitalpen elektronikoen zabalkundea, hizkuntza eskubideen arloan egindako urratsak eta hizkuntza planak ezartzeko esperientziak.

Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna[15]

Estatuko Administrazioarekin dagoen lankidetza lerroa da, eremu urriko hizkuntzak babestu eta sustatzeko. Estatua da gutunaren sinatzailea, eta berari dagokio ebaluazio-txostena osatzea, baina horretarako autonomia erkidegoetako gobernuen laguntza izaten du, Hizkuntza Ofizialen Bulegoaren bidez. Europako Kontseiluak hiru urtez behin egiten du hartutako konpromisoen jarraipena eta ebaluazioa, eta oharrak eta gomendioak jasotzen ditu.

[15] Espainiak 1992an sinatua eta 2001ean berretsia. [https://www.boe.es/boe /dias/2001/09/15]

Nazioarte mailako lankidetza programei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak egindako lanarekin batera, Garabide Elkartea eta Munduko Hizkuntza Ondarearen Unesco Katedra aipatu behar dira, besteak beste, hizkuntza gutxituak dituzten gizarteetan eleaniztasuna sustatzen dutenak.

6. JARRAIPENA ETA EBALUAZIO-SISTEMA

Euskararen erabilera arautzen duen 10/1982 Legeak hizkuntza eskubide batzuk aitortzen dizkie herritarrei eta betebeharrak ezartzen dizkie administrazioei, hizkuntza eskubide horiek bete eta berma ditzaten. Xedea da hizkuntza eskubide horien erabateko bermerantz aurrera egitea eta euskara gure bizitzako eremu eta une guztietan erabili ahal izatea ahalbidetzea.

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa ezartzen duen 389/2024 Dekretuaren arabera, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari dagokio Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza politika artikulatzea eta haren jarraipena egitea euskararen erabilera normalizatzeari dagokionez, eta arlo horretako jardun-irizpideak garatzea eta ezartzea.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak[16] izango du *Euskararen Plan Estrategikoa* kudeatzeko ardura. Hala ere, euskarak zeharkako izaera duela kontuan hartuta, nabarmentzekoa da plan hau Eusko Jaurlaritza osoaren plan estrategikoa dela; sail bakoitzak euskaran eragitea ere zeharkako politikak garatzea delako. Horrela, lankidetzaren garrantzia azpimarratu behar da, eta dokumentu honetan jasotako ekintzak bideratzeko eta horien jarraipena egiteko, lantalde txikiak eratu ahalko dira eremuka.

Horrez gain, planaren jarraipena egiteko Jarraipen Batzorde Iraunkorra eratzea ere aurreikusi da. Kide hauek izango ditu:

- Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua (batzordeburua)
- Hizkuntza Politikarako sailburuordea
- Enplegu eta Inklusio sailburuordea
- Hezkuntza Politiketako sailburuordea
- Lanbide Heziketako sailburuordea
- Unibertsitate Politikako sailburuordea
- Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordea
- HABEko zuzendari nagusia
- Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria
- IVAPeko zuzendaria
- Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzeko ordezkaria, gutxienez zuzendari mailakoa

[16] Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren egitura: Euskara Sustatzeko Zuzendaritza, Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritza, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritza eta HABE erakunde autonomoa, sailburuordea buru dela.

Era berean, erakunde hauetako ordezkariak –gutxienez zuzendari mailakoak– ere partaide izango dira:

- Osakidetza
- Justizia
- Ertzaintza
- EITB
- Eustat
- Emakunde

Batzordea urtean behin elkartuko da, urteko kudeaketa planaren jarraipena egiteko eta *Euskararen Plan Estrategikoa*n hartutako konpromisoak betetzen ari diren ikusteko.

Planak urtez urteko kudeaketa planak izango ditu, eta bertan jasoko dira xehetasunak (arduradunak eta bidelagunak, jarduera zehatzak, epealdia...) eta bertan egingo da zehaztutako helburuen, ekintzen eta adierazleen jarraipena. Planaren epealdia amaitzen denean, ebaluazio-txostena egingo da. Datuez gain, hartutako erabakien eta ezarritako neurrien eraginkortasunari buruzko ikuspegia ematen saiatuko da, etorkizunerako erabaki egokiak hartzeko ere oinarria sendoa izan dadin.

Amaitzeko, azken ebaluazio-txostenaren berri emango zaio Gobernu Kontseiluari.

ERANSKINA

*Euskararen Plan Estrategikoa*ri buruz onetsitako ebazpenak

Kultura, Euskara eta Kirol Batzordeak, 2026ko ekainaren 3an egindako bilkuran, aztergai izan du Eusko Jaurlaritzaren *Euskararen Plan Estrategikoa* eta, eztabaida egin ondoren, honako ebazpen hauek onetsi ditu.

1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:

   - Doakotasun politikan aurrerapausoak ematen jarraitzea, progresiboki bide eta modu berriak esploratuz, edozein euskal herritarrek euskara ikasteko aukera izan dezan, helburu behinena izanik ahalik eta erabiltzaile independente gehien lortzea euskararen erabilera soziala areagotzeko.
   - Etorkinei begira, ikastaro eskaintza zabaldu, metodologia egokitu eta eskuragarriago jartzea.
   - Sektore jakinetarako, ostalaritza edo zaintza kasu, tresna edota ikastaro bereziak gauzatzeko aukera aztertzea.
   - INGURA autoikaskuntza-sistemaren garapenarekin jarraitzea, eta berau herritarrentzat irisgarriagoa izateko neurriak hartzea, desgaitasuna dutenen eskura errazago iristeko.

2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio familia bidezko transmisioa sustatzeko dauden metodologia eta praktika onak jaso, landu eta gizarteratu ditzala, bereziki, familia euskaldun berriengan arreta jarrita.

3. Eusko Legebiltzarrak uste du beharrezkoa dela euskararen zeharkakotasuna bermatzea, bai administrazioko eremu guztietan, bai gizartean.

   Bestalde, euskal administrazioek bermatu beharko dute bi hizkuntzak erabiltzea beren barneko zein kanpoko harremanetan. Horretarako, garrantzitsua da beharrezko pausoak ematen jarraitzea, euskara zerbitzu-hizkuntza izateaz gain, lan-hizkuntza izan dadin erakunde barruko jardueretan eta harreman-hizkuntza beste erakunde publiko eta pribatuekiko hartu-emanetan.

   Halaber, presente egon beharko da sail eta erakunde guztien plan estrategikoetan eta abian jarriko diren proiektu eta ekimenetan, pertsona bakoitzak hautatutako hizkuntza ofizialaren erabilera bermatuz.

4. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:

   - Administrazio publikoan euskarazko arreta eraginkorra bermatzeko neurriak areagotzen jarraitzea.
   - Herritarrei zuzendutako zerbitzu digital eta aurrez-aurrekoetan euskara bermatzeko urratsak egiten jarraitzea.

- Administrazioan, langileen arteko euskararen erabileran aurrerapausoak ematen jarraitzeko neurriak hartzen segitzea.

5. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:
   - Enpresetan euskararen erabilera sustatzeko programak bultzatzen jarraitzea.
   - Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektoreetan euskararen presentzia handitzeko programak sustatzea.
   - Interesa duten enpresa txiki eta ertainentzat hizkuntza-planen diseinuan eta ezarpenean laguntzea.
   - Lan munduan euskararen erabilera normalizatzeko akordioak bultzatzen eta konpromisoak sustatzen jarraitzea, "LANera" bezalako proiektuen bidez.
6. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio hiriguneetan "erabilgune berriak" sortzeko urratsak egitea (kalea, kirola, aisialdia, kultura), bereziki gazteen artean eta biztanleria-gune handietan euskararen erabilera soziala areagotzeko.
7. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:
   - Euskarazko hedabideentzako dirulaguntzak eskaintzen jarraitzea, hedabideen kalitatea jomugan.
   - Ikus-entzunezko ekoizpena bultzatzen jarraitzea (zinema, telesailak, eduki digitalak...).
   - Gazteei zuzendutako euskarazko edukiak sustatzea.
   - Plataformetan (*streaming*) euskarazko eskaintza handitzeko neurriak bultzatzea.
8. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:
   - Ingurune digitalean euskararen presentzia handitzeko neurriekin aurrera egiten jarraitzea.
   - Adimen artifizialean eta hizkuntza-teknologietan euskararen garapena sendotasunez sustatzen segitzea behar besteko euskarazko corpus digitala izan dezagun. Era berean, euskalkiak aintzat hartuko dituen corpusa sortzea, gainontzeko corpusaz gain, euskalkiak erabilgarri izango diren tresna digitalak abian jartze aldera.
   - Sare sozialetan euskarazko edukia gero eta handiagoa izan dadin sustapen politikekin jarraitzea, laguntzak direla medio.
   - Software, aplikazio, tresna eta zerbitzu digitaletan (Itzuli, itzultzaile automatikoa...) euskararen erabilgarritasuna bultzatzea.
   - Gazteen artean ingurune digitalean euskararen irudi positiboa sendotzeko ekimen berritzaileak garatzea.
9. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:

- Etorkinentzako hizkuntza-harrera programetan euskararen eta euskal kulturaren presentzia areagotzeko urratsak ematea.
- Euskararen ikaskuntza eskuragarria izan dadin neurriak zabaltzen jarraitzea.
- Kulturartekotasuna eta euskararen ikaskuntza uztartzen dituzten programak sustatzea.

10. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:

- Euskararen balio soziala eta emozionala indartzeko urratsak egin eta ekimenak bultza eta balioan jartzea.
- Euskararen erabilera prestigiodun eremuetan (unibertsitatea, ikerketa, enpresa handiak, kultura-sorkuntza) euskara ikasi eta erabilera sustatzeko neurriak bultzatzea.
- Erreferente publikoek eta eragile sozialek euskararekiko aldekotasuna eta erabilera aktiboa egin dezaten sustatzea.
- Euskaraz egindako lan akademiko, zientifiko eta kulturalen aitortza eta zabalkundea indartzea.
- Diskurtso publikoan euskararen balioa eta erabilgarritasuna nabarmentzeko estrategiak bultzatzea.
- Euskararen nazioarteko presentzia sustatzeko estrategia indartzen eta garatzen jarraitzea.
- Euskal etxeen eta diasporaren bidez euskararen irakaskuntza eta erabilera bultzatzea.
- Atzerriko unibertsitateetan euskara eta euskal ikasketak sustatzeko lankidetza-programak indartzea eta zabaltzea.
- Euskaraz egindako kultur adierazpen eta sorkuntza (literatura, zinema, musika) nazioartean hedatzeko eta haren proiekzioa bultzatzeko laguntza areagotzea eta euskararen aitortza eta presentzia handitzeko ekimenak sustatzea.
- Hizkuntza gutxituen nazioarteko sareekin lankidetza indartzea, esperientziak partekatzeko eta politika bateratuak bultzatzeko.
- Europar Batasunean euskara hizkuntza ofiziala izan dadin urratsak egiten jarraitzea.

11. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:

- Euskararen ezagutza, erabilera eta jarrerari buruzko datu-bilketa sistema bateratu eta eguneratua garatzen jarraitzea.
- Euskararen erabileraren neurketa erregularra egiten duten inkestak eta azterketak indartzea.
- Euskararen egoera soziolinguistikoari eta hizkuntza-politikari buruzko ikerketa programak, ekintzak edo/eta antzeko jarduerak bultzatzea eta indartzea.

12. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio 2026-2030 epealdirako diseinatutako *Euskararen Plan Estrategikoa*n xehetutako helburuen eta ekintzen betetze-mailaren jarraipena eta ebaluazioa egin ditzala Jarraipen Batzordeak. Batzordeak, besteak beste, kide hauek izango ditu: Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua, Hizkuntza Politikarako sailburuordea, Hezkuntza Politiketako sailburuordea, Lanbide Heziketako sailburuordea, Unibertsitate Politikako sailburuordea, Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordea, Enplegu eta Inklusio sailburuordea eta Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzeko ordezkaria, gutxienez zuzendari mailakoa. Jarraipena egin dezala, sistema eraginkor baten bidez, planaren helburu eta ekintzak urtetik urtera berrikusteko eta behar denean egokitzeko, moldatzeko edo berriak proposatzeko.

13. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarrai dezala euskararen eremu geografikoan zein nazioartean lankidetza-sareak indartzen eta zabaltzen, etengabeko elkarlan koordinatua sustatzen erakundeen artean eta gizartearen zein euskalgintzaren ordezkari nagusiekin etengabeko harremana sustatzen.

14. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarrai dezala Nafarroako Gobernuarekin eta Euskararen Erakunde Publikoarekin euskara sustatzeko lankidetza protokoloa sendotzen.

15. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, Estatuko errealitate anitza kontuan hartuta, jarrai dezala Estatuko beste komunitateekin duen lankidetza protokoloan sakontzen komunak diren interesen alde eginez.

16. Eusko Legebiltzarrak euskara eta euskal kulturak duten lotura apurtezina aitortzen du**.** Euskal kulturaren ekosistemak euskararen ezinbesteko motorra izan behar du. Euskarak gizarteari euskal kulturaren transmisioa egiteko soka izan behar du. Horregatik, administrazio publikoen ezinbesteko egitekoa da lotura honen mantentze eta aberastea.

17. Eusko Legebiltzarrak Hezkuntza Sailari eskatzen dio jarrai dezala Lanbide Heziketan euskarazko eskaintza handitzen, aukerak/ikasgaiak/euskara indartzen. Eta, era berean, eskatzen dio Lanbideri jarrai dezala indartzen euskara bere prestakuntza ikastaroetan eta euskaraz emandako ikasketak sendotu ditzala.

18. Eusko Legebiltzarrak Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari eskatzen dio Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako gai- eta sektore-plan guztietako edukiak *Euskararen Plan Estrategikoa*n –eta beronen kudeaketa planean– integratu ditzala, hura izango delarik Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren plangintza-tresna bakarra.

19. Eusko Legebiltzarrak balioan jartzen du aurretiaz euskararen alde egindako lana, eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarrai dezala politika publikoak bultzatzen proiektu eraldatzaileen bidez.

20. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, orain arte bezala aurrerantzean ere, bultza dezala eta aintzat hartu Euskararen Aholku Batzordearen lana.

21. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, “Jauzia Gara” proposamenaren marko barruan, garatu ditzala euskararen erabilera sustatzeko ekimenak gizarte- eta

komunitate-esparruan administrazio, erakunde, gizarte antolatu eta elkarteekin lankidetzan.

22. Eusko Legebiltzarrak bere babesa adierazten dio “Jauzia Gara” proposamenari eta horren barruan *Aroa* marko estrategikoari, Euskaltzaindiaren *Euskararen Gogoetagunea* egitasmotik eratorritako ekarpenei eta *Euskararen Plan Estrategikoa*ri, eta, era berean, berresten du hizkuntza-normalizazioarekin eta euskara gizartearen arlo guztietan sustatzeko konpromiso instituzionala.

23. Euskararen ezagutzan eta erabileran jauzi kualitatiboa ematea da legegintzaldi honetako helburu nagusia. Euskararen ezagutza eta erabilera etengabe sustatzea nahitaezkoa da euskal herritarron hizkuntza eskubideak bermatzeko eta euskararen eremuak zabaltzeko. Izan ere, hori guztia funtsezkoa da kalitatezko bizikidetzan aurrera egiteko. Jauzi kualitatibo hori ematea gizarte osoari dagokio, kide guztien bultzadaz, komunitate bakar bezala jokatuz, euskara guztion ondasuna delako. Euskarak denok behar gaitu.